


2023 URTEKO MEMORIA



Tolosaldea
garatzen

AURKIBIDEA

SARRERA	3
ADMINISTRAZIO ORGANOAK	4
UDAL SAILA	5
ENPRESA SAILA	11
EKINTZAILETZA SAILA	19
ENPLEGU SAILA	26
TURISMO SAILA	33
MIGRAZIO ETA ANIZTASUN SAILA	42
KONTSUMITZAILE BULEGOA	50
ERANSKINAK	55

SARRERA

Tolosaldea Garatzen eskualdeko udalek sortutako erakundea izanik, 2023ko udal hauteskundeek beste mugarri bat markatu dute bere ibilbidean. Hori dela eta, bere erabaki organoak berriro dira eta, hein batean, trantsizio urtea izan dela esan daiteke.

Nolanahi ere, 2022ko abenduko Batzar Orokorrean garapen agentzia eskualdeko udalen baliabide propio izendapena onartu zenetik aurrera, udalekiko harremanak erregularizatu ahal izan dira, eta aurrerantzean udalen ekarpenak *enkargu* bidez arautuko dira.

Garapena agentziako lantaldea urteetan zehar hautatu eta kontratatutako esperientzia luzeko 17 teknikariz osatuta dago gaur egun. Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen eraginez, haien egoera egonkortu eta finkatzeko aukera suertatu da, eta horrek lanketa garrantzitsua eskatu du. Prozesua bi txandatan bideratzen ari da, eta 2024an zehar osatuko da enplegua egonkortzeko prozesua.

Urteak ekarri duen berrikuntza azpimarragarria da, bestalde, Next Generationeko Turismo Jasangarriko deialdian Tolosaldeko Turismoa Garatzeko proiektua onuradun suertatu izana. Horrek ia bi milioi euroko inbertsioa erakarriko du eskualdera 2024an eta 2025ean. Agentziako egitura eta antolaketa, erronka berri honetara egokitzeko ahalegin handiak egin dira urtean zehar.

Eskualdeko Udalek garapen jasangarriaren alde eta biztanleen bizitza kalitatea hobetzeko apustua indartzen ari da. Horren adierazgarri da, batetik, udalen ekarpena %11 handitu izana 2023an, kanpoko diru laguntzen gabeziak konpentsatzeko; eta bestetik, Gazteluko Udalak ere agentziarekin bat egin izana, berriro ere Tolosaldea Garatzeneko Gestio Planaren eta dinamikan parte hartze aktiborako borondatea adieraziz.

Ingurumari ekonomikoari dagokionez, esan daiteke azken urteotako joerari eutsi zaiola, eta mundu mailako gorabehera geopolitikoaren eraginetik salbu ez dagoen arren, oraingoz ongi eusten ari zaiola enplegua sortzeko gaitasunari. Azken hamarkadako langabezia tasa apalenetara iritsi gara, eta horrek, enplegu ikuspegitik zaurgarriagoak diren kolektiboetan zentratzera eraman gaitu, kronifikatutako langabeei arreta handiagoa eskainiz.

Bestalde, Tolosaldeko Plan Estrategikoan adieraziaren ildoari jarraiki, jasangarritasuna ardatzen ari da agentziak bideratzen duen lanketa guztian, ingurumen ikuspegitik, sozialetik, eta ekonomikotik, energia planaren garapenarekin, ekonomia zirkularren inguruko proiektuekin, migratzaileekiko lanketarekin, e.a.

Horren erakusgarri, ondoren aurkezten zaizuen garapen agentziako sail desberdinen jarduera eta proiektu nagusien laburpena.

Administrazio Kontseilua

ADMINISTRAZIO ORGANOAK

BATZAR NAGUSIA HONAKO UDALETAKO ORDEZKARIZ OSATUTA DAGO:

1.	ABALTZISKETA	15.	ELDUAIN
2.	ADUNA	16.	GAZTELU
3.	ALBIZTUR	17.	HERNIALDE
4.	ALEGIA	18.	IBARRA
5.	ALKIZA	19.	IKAZTEGIETA
6.	ALTZO	20.	IRURA
7.	AMEZKETA	21.	LARRAUL
8.	ANOETA	22.	LEABURU
9.	ASTEASU	23.	LIZARTZA
10.	BALIARRAIN	24.	ORENDAIN
11.	BELAUNTZA	25.	OREXA
12.	BERASTEGI	26.	TOLOSA
13.	BERROBI	27.	VILLABONA
14.	BIDEGOIAN	28.	ZIZURKIL

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA:

Lehendakaria: ANDU MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI. Tolosako alkatea.

Lehendakariordea: ALAITZ LABAIEN TOLOSA. Amezketako zinegotzia.

Kontseilariak:

JON ZUBIZARRETA ALDAYA. Abaltzisketako alkatea.

INAKI XABIER IRAZABALBEITIA FERNANDEZ. Alkizako alkatea.

XABIER OLANO JAUREGI. Altzoko alkatea.

BEATRIZ UNZUE ESNAOLA. Amasa-Villabonako alkatea.

MARIA PILAR LEGARRA CORTAJARENA. Asteasuko alkatea.

IKER IPINTZA SORRON. Hernialdeko zinegotzia.


NAGORE ZUBILLAGA GARMENDIA. Ibarako zinegotzia.

GORKA MURUA MACUSO. Irurako alkatea.

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA. Lizartzako zinegotzia.

Idazkaria: JON ZUBELDIA ZURUTUZA

Gerentea: JOXE LUIS URDANGARIN GOÑI



Tolosaldea

udalak garatzen

Udal Sailaren jardura legegintzaldi aldaketak markatu du 2023 urtea. Tolosaldeko udal agintaritzen erdia baino gehiago berritu da eta horrek eragin zuzena du udal kudeaketan. Horrez gain, 20/2021 legean oinarritutako egonkortze prozesuak garatzen joan dira gure udaletan. Horren ondorioz, adibidez, elkartrukaketa dinamikak zertxobait geldotu dira. Idazkari Foroak geldione bat izan du aurten eta ingurumen teknikarien Foroak bi aldiz bakarrik bildu da. Tokiko garapen teknikarien zerbitzu partekatua koordinatzen jarraitu dugu Tolosaldeko 8 udaletan.

Formakuntza aldetik, ordezkari politiko berriei zuzendutako harrera eta formakuntza ekitaldia ospatu dugu uztailean, udal politikariak (alkateak eta zinegotziak) tresna egokiez hornitzeko saiakera eginez, udal kudeaketa eraginkorragoa eta herritarren beharrei egokitua izan dadin.

Ingurumen gaietan, azken urteetan energia bihurtu da udalen eta eskualdearen erronka handienetako bat eta Energia Planaren garapena udalen betekizunetan oinarritu da hain zuzen; herritarrei eta beste eragileei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio jardueraz gain, udalerrietan 4/2019 Legea bultzatzeko programa garatu da.

Garapen jasangarrian oinarritutako proiektuekin jarraitu dugu: Eskola Agenda 2030 programa beste urtebetez koordinatu du Udal Sailak eskualdean, (energia gaia bigarren urtez jarraian landu da), edota elikadura zirkularrean oinarritutako eskualdeko ikastetxeetan soberakin organikoak gutxitzeko ekimena, bigarren urtez, Tolosaldeko Mankomunitatearekin elkarlanean.

Azkenik, hezkuntza arlotik, zientzia eta teknologiaren sustapenean Tolosaldea Garatzen agentziak eta Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuak elkarlanean Tolosaldeko ZTIAM-STEAM Eskola mantendu dute ekaina arte, Tolosako Udalaren laguntzarekin; ordea, 2023-2024 ikasturterako ez jarraipenik izango, ezin izan direlako horretarako baliabideak bermatu.

ELKARLANA ETA KOORDINAZIOA

20/2021 legearen egonkortze prozesuetan murgilduta egon direlako eta udal gobernu berriak eratzen aritu direlako, batetik, eta idazkaritza askotan eman diren aldaketak direlako, bestetik, Tolosaldeko udal askorentzat urte konplikatuak izan da, eta ondorioz, Udal Sailak ez du **Idazkarien Foroa** deitu 2023 urtean.

Tolosaldeko Ingurumen Batzordea eskualde mailan eskuartean ditugun jasangarritasun proiektuak azaltzeko eta eztabaidatzeko foro gisa bi aldiz bildu da aurten. Lehena, maiatzaren 25ean ospatu zen eta Energia Planaren azken jardueraz gain Tolosaldea Garatzenek onartu berri duen Turismo Jasangarriaren Planari buruz hitz egin dute, besteak beste. Bigarrena, uztailaren 11ean, energiaz, Hondakinen Lege onartu berriak udaletan duen eraginaz, Eskola Agenda 2030en balorazioaz eta sentsibilizazio ekintzez eta Energia Berriztagarrien PTS-az aritu dira ingurumen eta tokiko garapen teknikariak.

ZERBITZU PARTEKATUAK: TOKIKO GARAPEN TEKNIKARIAK

Tolosaldea Garatzeneko Udal Saila teknikaria tokiko garapen teknikarien lanaren jarraipena eta koordinazioaz arduratzen da eta 2023an honako udaletan eta lanaldiarekin aritu dira:

UDALA	2021
ALEGIAKO UDALA	20%
AMEZKETAKO UDALA	30%
ASTEASUKO UDALA	20%
BERASTEGIKO UDALA	20%
ELDUAINGO UDALA	15%
IKAZTEGIETAKO UDALA	15%
LIZARTZAKO UDALA	15%
OREXAKO UDALA	15%

2023an ere, Udalaren eta udalerraren garapenerako interesgarriak izan daitezken proiektuak, diru laguntzak etab. kudeatu dituzte: egitasmoak landu, diru laguntzak bilatu eta proiektuak garatu. Honako funtzioak bete dituzte udal teknikari partekatuek:

- Ingurumen alorrean udal programak eta ekimenak nahiz jarduerak planifikatu, diseinatu eta kudeatu.
- Landa ingurunearen garapen egokia lortzea helburu duten prebentzio eta sustapen zein sentsibilizazio kanpainak bultzatu.
- Hondakinen kudeaketaren inguruko udal politika eta jarduerak planifikatu, diseinatu eta kudeatu.
- Energia eraginkortasuneko udal politikak gauzatu.

- Mugikortasun jasangarriko politikak gauzatu udalean: Eskualdeko Bizikleta Planaren ezarpena kudeatu.
- Beste erakunde batzuen finantzaketa bilatu eta tramitatu: EVE, GFAko Agenda 21, parte hartzea edo hondakin prebentzioa, EJ- Ingurumen Saila, LEADER-EREIN etab.
- Herri Batzarrak antolatu eta dinamizatu: Herritarren parte hartzea sustatzeko eta herritarren proposamenak jasotzeko eta udalaren parte egiteko.
- Udal batzorde informatzaileak dinamizatu.
- Udal erosketa berdea sustatu.

ESKOLA AGENDA 2030 PROGRAMA

Eskola Agenda 2030 jasangarritasun hezkuntzako programan parte hartu duten udalak eta ikastetxeak hauek dira:

- Udalak (8): Aduna, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Ibarra, Irura, Villabona, Zizurkil.
- Ikastetxeak (11): Aduna HE, Anoetako Ikastola, Pello Errota HI, J.A. Muñagorri LHI, Uzturpe Ikastola, Irurako Ikastola, Zubimusu Ikastola, Fleming HI, Ernio-bea Institutua, Pedro Mari Otaño Eskola eta Fraisoro Nekazal Eskola.

ENERGIA gaia bigarren urtez lantzen ari dira eta proiektu desberdinak garatzen ari dira eskoletan. Lanbide Heziketako ikastetxeetan, adibidez, etxeetan energia azterketak egiteko prestatzen ari dira ikasleak: Peñascal Kooperatibak dituen etxe tutelatuetan egin dituzte lehen azterketak eta Tolosaldea Lanbide Heziketako Institutuko ikasleek Inmakulada Ikastolako ikasleak formatu dituzte bisita horiek egiteko. 2024 urterako, guztion artean energia azterketa horiek egiteko txantilo bat garatzea dute asmoa, herritarrek erabili ahal izateko.

TOLOSALDEKO ENERGIA PLANA

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2022-2023 bi urtetarako hitzarmena sinatu zen eta 2021-2024 Piztu Tolosaldea Energia Estrategia gauzatzen aritu da. 2022an garatutako ekintzek bereziki ikuspegi soziala zuten (Energia Bulegoa, pobrezia energetikoa, etab.). 2023an EAEko Jasangarritasun energetikoko 4/2019 legea bultzatzeko udalei asistentzia eman zaie Udal Siletik hitzarmenaren azken urte honetan.

UDAL POLITIKA ETA EKINTZAK

Tolosaldeko Udalerrietan 4/2019 Legea bultzatzeko programa:

Trantsizio energetikoan aurrera egiteko eta klima-aldaketak eragindako inpaktuei aurre egiteko, Tolosaldean, udalerrri ugari eskualdea izanik eta horietako gehienak txikiak (19 udalerririk 1.000 biztanletik behera eta 7 udalerririk 1.000 eta 5.000 biztanle artean) ezinbestekoa da eskualde mailako ekimene bitartez aritzea.

Eskualdeko plangintza energetikoaren koordinazio daramagun unetik, batetik, Tolosaldean 4/2019 legearen ezarpena ezagutzea ezinbestekoa da, eta bestetik, 2024an Trantsizio Energetikoaren eta Klima-Aldaketaren etorkizuneko Legea egokitzeko

bidean laguntzea ere. Bestalde, ordezkari politiko berriak ditugu eskualdean (28 udalerrietatik 15 udalek) eta energia lehentasunezko gaia dela eta tokiko politikan arrastoa eduki behar duela azalarazten saiatu da Tolosaldea Garatzen.

Udaren bueltan inkesta bat bidali dugu energiaren inguruan udalak emandako urratsen inguruan galdezka. Lehen argazki hori dokumentu batean jaso dugu eta udalekin kontraste bilera egin eta ekarpenak bildu ondoren, behin betiko dokumentua osatu dugu. Gainera, udal txikiekin banakako bilerak egin ditugu euren egoera azaltzeko eta energia gaietan udalaren bide-orria diseinatzen laguntzeko helburuarekin. Azkenik, eskualdeko udalek energia legea betetzeko dituzten arazoei aurre egiteko Tolosaldea Garatzen agentziak dituen erronkak ere biltzen ditu dokumentuak.

Udal instalakuntzen kudeaketa integratua:

2021 eta 2022 urte artean 4/2019 legeak eskatzen duen udal instalakuntzen kontsumoa neurtzeko kudeaketa sistema partekatua kontratatu zuten 28tik 26 udalek. Aurten, datuen eguneraketa egiteko garaian teknikariak software sistema erabiltzeko zailtasunak dituztela adierazi dute eta Our City Our Energy software sistemaren erabilera gida idatzi dugu euskaraz eta erderaz.

POBREZIA ENERGETIKOA

1. Pobreziaren aurkako sarea sortu eta dinamizatzea

2023ko apirilaren 28an, Tolosaldeko Pobreziaren aurkako Formakuntza Programaren amaieran (2022 urtean hasitako Programa) bertan lehentasunezko ekimenak zehaztu genituen.

2. Pobrezia energetikoaren kudeaketa energia bulegoan txertatu.

Energia bulegoaren bitartez gizarte zerbitzuetatik bideratutako kontsultak erantzun dira, horietako asko bono sozial energetikoaren eskaerak egiteko laguntza eskaerak izanik.

3. Gizarte zerbitzuak eta erabiltzaileak pobrezia energetikoan ahalduntzea.

Udal gizarte zerbitzuekin eta Zutani elkartearekin elkarlanean, 14 etxebizitzetan energia azterketak egin dira. Bisita horiek egiteko Goienerren Laguntza izan dugu eta horien bidez, etxebizitzaren energia diagnostikoak egin dira, eta diagnostiko horietatik haien egoera hobetzeko proposamenak atera dira.

ENERGIA AZTERKETAK SALTOKIETAN

Tolosaldea eskualdean kokatuta dauden 15 merkataritza-establezimenduen energiaren arloko egoera aztertu eta proposamenak aurkeztu dizkiegu. Eskualdeko merkataritza elkarteekin eta udalekin elkarlanean aritu gara eta harrera ona eduki du, izan ere, itxaron zerranda ireki behar izan dugu. Izadi 21 eta UHIN aholkularitza etxearekin eraman dugu aurrera Proiektua.

ENERGIA BULEGOA

2022an ezarritako zerbitzuarekin jarraitu dugu. Lehen hilabetetan energia bulegoa artatzeko zerbitzua kontratatu dugun arren, martxotik aurrera zerbitzua eten da eta Udal Saileko teknikariaren bitartez eman dugu, eskualdeko mailako zerbitzuaren konfigurazioa Tolosako Udalarekin batera zehaztu zain. Guztira 58 pertsona izan dira Energia Bulegoarekin harremanetan jarri direnak. Kontsulten %65,5a gizarte bono energetikoaren inguruan izan da, %15,5an gasaren inguruan, %8,6 birgaitze energetikoaren inguruan eta beste %10 beste kontsulta mota batzuk.

BONO SOZIALAREN INGURUKO KANPAINA

Bestalde, urtearen amaieran **Bono Sozialaren inguruan informazio kanpainarekin** jarraitu dugu. Tolosaldeko udal gizarte zerbitzuek hala proposatuta, bono sozialaren informazio guztia jasotzen duen kartela eta triptiko bat egin dugu eta eskualdeko udal establezimendu eta hezkuntza eta osasun arloarekin zerikusia duten espazio publikoetan jarri ditugu euskarriak, bereziki bono soziala jasotzen aukera duten kolektiboengana zuzenduz.

ELIKADURA ZIRKULARRA.

2020an “Tolosaldeko lehen hezkuntzako eskoletako jantokien egoeraren analisia, xahututako elikagaien estimazioa eta alternatiben azterketa” egin zen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Ikasturtean 30 tona urtean xahutzen direla ikusita, elikagaien xahuketa murrizteko eta kudeatzeko estrategiak, protokoloak edota sistemak proposatzen dituen proiektuarekin hasi ginen 2022 urtean eta 2023an amaitu.

Proiektu honen helburu nagusia proiektuan parte hartu nahi zuten Tolosaldeko eskolen jantokietan gertatzen den elikagaien xahuketaren egungo egoera ikertu eta, ondoren, xahuketa hori murriztu edota kudeatzeko beste eredu bat planteatu eta martxan jartzea izan da.

1. Fasea: eskolen elikagaien xahuketa kuantifikatu eta hau murrizteko protokoloak ezarri dira.
2. Fasea: murriztu ezin den elikagaien soberakinak berzirkularitzatzeko protokoloak diseinatu eta balioztatu
3. Fasea: behin protokoloak balioztatuta, sobratutako elikagaien berzirkularizazio sarea eratu eta martxan jarri.

Proiektu honetan parte hartzeko gonbidapena eskualdean dauden Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskolei luzatu zitzaizen. Hau da, gutxienez 10.000 otorduetan xahututako elikagaiak ekidin nahi ziren eta, ondorioz, ikasturtean 30 tona elikagai aprobetxatu. Honako ikastetxeak hartu dute parte prozesuaren hasieratik:

Tolosa: Herrikide, Samaniego eta Laskorain ikastola

Ibarra: Uzturpe ikastola

Berastegi: Muñagorri ikastetxea

Alegia: Herri eskola eta Aralar institutua

Villabona: Zubimusu ikastola

Zizurkil: Pedro Mari Otaño H Eskola eta Zubimusu ikastola

Anoeta: Anoetako ikastetxea
Lizartza: Lizartzako Herri Eskola

Lehen fasearen ondoren, ikastetxeek prebentzio protokoloak ezarri dituzte eta hurrengo faserako, soberakina berzirkularizatzeko prozesuan honako ikastetxeak hartu dute parte:

Tolosa: Herrikide, Samaniego eta Laskorain ikastola
Alegia: Herri eskola eta Aralar institutua
Villabona: Zubimusu ikastola
Zizurkil: Pedro Mari Otaño H Eskola eta Zubimusu ikastola

Eskoletan baliabideak aztertu dira eta hozkailu horizontalak erostea eta bertan janaria izoztea proposatu da. Horrela, sobratutako janaria gorde, klasifikatu eta banatzeko protokoloa finkatu eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin bilera egin zen protokoloa aurkezteko eta proba pilotua martxan jartzeko baimena eskatzeko. Froga pilotua Herrikide ikastetxean egin zen urte amaieran eta honen txosten teknikoa Osasun Sailera bidali eta onartu dute.

Bitartean, eskualdean dauden hainbat gizarte eragileekin hartu emana egin da. Baztertze arriskuan eta beharra duten familien artean elikagaiak banatzen dituzte eta elikagaien bankuarekin eta Villabonako eta Tolosako Udaleko Gizarte zerbitzuekin harremanetan daude.

TOLOSALDEKO ZTIAM-STEAM ZIENTZIA ESKOLA

Urritik ekainera bitartean eskolaz kanpo astean behin zientzia eta teknologia tailerrak eskaini ditu Zientzia Eskolak eta Tolosako Lanbide Heziketa Institutuan.

25 ikaslek hartu dute parte bi ordutegi desberdinetan:

- 2010-2011 jaiotakoak (10-12 urte): asteazkenetan, 17:15 18:45.
- 2008-2009 jaiotakoak (12-14 urte): asteazkenetan, 19:00 20:30.

Eskualdeko enpresak aktiboki parte hartu dute tailerretan: berrikuntza arduradun edo gerenteak tailerrera gerturatuz eta beraien esperientzia kontatuz edota ikasleak enpresetara bisitak eginaz.

- Mubil, mugikortasun jasangarri eta adimenduaren poloa ezagutu dute, maiatzaren 10ean.
- Domotek, 3D inpresio zerbitzua eskaintzen duen enpresa teknologikoa ezagutuko dute maiatzaren 24an.
- Algaloop, algak ekoizten dituen enpresako CEO eta arduraduna Anaut Franzek bere enpresa ezagutzera gonbidatu gaitu bere ezagutza eta bere lana azaltzera eta Zientzia Azokan ere hartu du parte.

Azkenik, Maiatzaren 6an, Elhuyar eta Kutxa Fundazioak antolatuta eta Tolosaldea Garatzen eta Tolosako Udalaren laguntzarekin, I Elhuyar Zientzia Azoka ospatu zen eta ZTIAM Eskolako ikasleak parte hartu zuten. Bertan egon zen ere Algaloop enpresa, euren lana aurkezten.



Tolosaldea

enpresak garatzen

ENPRESA SAILAREN JARDUERA

Testuinguru ekonomikoari dagokionez, eskualdeko enpresen fakturazio maila orokorrean altua da. Kasu askotan inoiz izan dituzten fakturazio datu onenak izaten ari dira. Enpleguari dagokionez, langabezia tasa baxua da. Enpresek gero eta arazo gehiago dituzte pertsonak euren enpresatan mantendu edo kanpotik talentua erakartzeko. Horretaz gain, nahiz eta fakturazio maila ona izan irabaziak ez dira proportzio berdinean mantendu, marjinak gero eta murriztagoak dira eta. Horrek guztiak enpresa sailari enpresen lehentasunak eta beharrak identifikatzeko arrastoak eman dizkio 2023an zehar.

PROGRAMA PUBLIKOAK

PYME DIGITALA

2018az geroztik Gipuzkoako Foru Aldundia lurraldeko enpresetan Industria 4.0 teknologiak txertatzeko prozesu batean murgildurik egon da garapen agentzien eskutik. 2023an ere eraldaketa digitala garatzeko prozesuan lanean aritu gara.

Programa honen baitan hasieratik ezarri genuen helburu nagusia gaur egun digitalizazioaren arloan eskualdeko enpresa txiki eta ertainak izaten ari diren aldaketa eta transformazioaren inguruan erantzun bat eman eta berrikuntza eta iraultza teknologiko honen baitan enpresen prestakuntza eta kapazitazioan bidelagun izatea izan zen.

Eraldaketa digital hau ezinbestekoa da enpresa guztientzat tamaina, sektore, aktibitate edo heldutasun maila edozein izanda ere. Horregatik, aurretik aipatu dugun helburu hori eskualdeko enpresa guztietara zabaltzen saiatu gara.

2023an aurreko urteko estrategia berdina jarraituz, gure proiektua hiru fase

ezberdinetan banatu dugu: sentsibilizazio fasea, identifikazio fasea eta zehaztapen fasea. Lehengo fasean 20 enpresak hartu dute parte, eta bigarren eta azken fasean 7 enprekin egin dugu lanketa.

Azken bi fase hauetan, identifikazio eta zehaztapen faseetan, eskualdeko zazpi enpresa aukeratu dira beraiekin batera zentzu honetan aurrera pausuak eman eta beraien erakundeetan digitalizazioa txertatzen joateko asmoz. Ondorengo hauek izan dira proiektuaren fase hauetan lanketa egin dutenak: Talleres Arreche, Begiralia, Artelatz, L&L Rotary Solutions, Cadinox, Irupaper eta Lan Distribución.

Enpresa bakoitzaren errealitate, behar eta interesak ezberdinak dira. Bakoitzarekin aurrera eraman dugun lanketa euren lehentasunen arabera izan da. Izan ere, transformazio digitala enpresa guztietan beharrezkoa bada ere, guztiek ez diote modu berean aurre egiten eta estrategia ezberdinak garatzen dituzte.

Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera aurrera eraman denez eta hau PYME Digitala programaren barruko lanketa denez, egindako lana enpresentzako %100ean hobaritutakoa izan da. 2024an programa honek jarraipena izango du eta jada enpresa talde batekin lanean dihardugu.

HAZINNOVA

Hazinnova programa, berrikuntza ez teknologiko ezberdinak garatu nahi dituzten enpresa txiki eta ertainentzat bideratuta dagoen Eusko Jaurlaritzak sortutako ekimen bat da. Programa honen bitartez enpresek, produktu, prozesu, marketin eta antolakuntza arloetan berrikuntza dakartzaten mikro proiektuak garatzeko doako aholkularitza espezializatua jasotzen dute. Horretaz gain, laguntza zerbitzua eta lana antolatzeko modu berriak edota enpresako produktu eta zerbitzuak merkaturatzeko modu berriak ezartzeko balio die enpresei.

Hazinnova programa, enpresako errentagarritasuna hobetzeko, gastu edota entrega epeak murrizteko, langileen motibazioa areagotzeko, merkatu kuota handitzeko, prozesuen eraginkortasuna hobetzeko, bezero segmentu berriak aztertzeke, jabetza industriala babesteko, produktu edo zerbitzu berriak diseinatzeko eta behar teknologikoak zehazteko lagungarria izan daiteke. Horregatik, zortzi lote edo zerbitzu mota ezberdin bereizten dira, aholkulari etxe baten laguntza izanik proiektu ezberdinak garatzeko. Enpresen beharren arabera egokitu eta hobetzeko aukera hori aurkitzea da programa honen helburua.

Urte honetan zehar, programaren epe eta baldintzak bete dituzten Tolosaldeko hamabi proiektu garatu ditugu zortzi enpresetan.

- *NORANTZ FURGONETAK SL*. Zizurkilen kokatuta dagoen neurri handiko ibilgailuen kanper fabrikazio integralean diharduen enpresa da. Bigarren urtea izan da Hazinnova programan parte hartu dutela eta bi proiektu eraman dituzte aurrera: “Ekonomiko finantzario” eta “ekoizpen” lotea.
- *HNOS. ARRESE - TALLERES LASKIBAR, S.A.* Iruran kokatuta dagoen

mekanizazio tailer bat da. Enpresa honen lehenengo urtea izan da Hazinnova programan, “Bezeroak” eta “Merkatu berriak” loteak aukeratu dituzte proiektu txiki hauek aurrera eramateko.

- *HERTELL S.COOP.* Ikaztegietan kokatua dago eta bere muina huts-zisternetarako osagarriak egin eta saltzea da, depresoreen edo huts-ponpen lerroa nabarmenduz. Enpresa honen hirugarren urtea izan da Hazinnova programan, eta beste behin “Ekonomiko finantzario” lotearen ildotik jarraitzea erabaki dute.
- *IRUDEK 200 S.L.* Adunan kokatuta dagoen enpresa bat da, non bere egitekoa lanerako segurtasuna bermatzea den, babes ekipo edo bestelakoak komertzializatuz. Enpresa honen laugarren urtea izan da ekimen honetan parte hartzen. Lehenengo urtean proiektu bakarra gauzatu zuten baina aurrean, bi proiektu eraman dituzte aurrera: “Merkatu Berriak” eta “Ekoizpena” alorrean.
- *SMG GARRAIOAK.* Iruran kokatua dagoen garraio enpresa honek, proiektu bakarra eraman du aurrera Hazinnova programan. Lehenengo urtean parte hartu zuten eta aurrean ere berrikuntzaren lan ildoaren baitan jarraitzeko grina erakutsi dute. “Barne administrazio” loteko proiektu bat eraman dute aurrera.
- *BIORACER ESPAÑA.* Tolosan kokatuta dago eta bere jarduera arroparen diseinua, fabrikazioa eta inprimaziora zuzenduta dago, batez ere txirrindularitza arloan. “Merkatu berriak” lotea aukeratu dute proiektua aurrera eramateko.
- *AREKSON GROUP.* Adunan kokatuta dagoen enpresa honek autoentzako marka desberdinetako pinturak saltzen ditu. Lehenengo aldia da Hazinnova programan parte hartu dutela eta “Logistika” alorrean proiektu bat eraman dute aurrera.
- *TRANSPORTES Y ALMACENAJES AGUIAR, S.L.* Asteasun kokatuta dagoen garraio enpresa honen lehen aldia izan da Hazinnova programan eta bi proiektu eraman dituzte aurrera: “Barne Administrazioa” eta “Bezeroak” loteak aukeratu dituzte.

BERRIKUNTZA PROFILAK

Aurtengoan Innobasqueren bitartez enpresen berrikuntza maila eta hauek ekar ditzaketan hazkunde aukerak ezagutzeko tresna berri bat landu dugu. Horrela, tresna honen bitartez kasu zehatz bakoitzerako hobekuntza arloak, oztopoak, erronkak edo eremu interesgarriak identifikatu dira.

Horretarako, galdetegi bat eratu da. Helburuak, besteak beste, enpresaren egungo egoera ezagutu, berrikuntza maila zein den zehaztu eta egon daitezken aukerak mahai gainean jartzea izan dira. Galdetegi hau erantzun ondoren enpresak txosten pertsonalizatu bat jaso du honen berrikuntzaren bidean gida moduan erabiltzeko. Izan ere, egoera zein den azaltzeaz gain, jarduketa eremuak zehazki azaldu dira. Gainera, lagungarri izan daitezken erakundeekin zuzeneko harremana sustatu da eta ezarpen prozesuan laguntza eta babesa eskaini dira.

2023an lanketa hau 7 enpresekin egin dugu eta emaitza positiboa izan da. Horregatik, Innobasquerekin elkarlanean jarraituko dugu eta 2024an ere enpresei aukera hau eskainiko diegu.

LANAREN ZENTZUA

Lanaren Zentzua Etorkizuna Eraikiz ekimenaren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta enpresa sailarekin elkarlanean lanaren etorkizunaren nondik-norakoaren inguruan hausnartzeko sortutako proiektu bat da.

Enpresetan absentismoa, bitarteko mandoen saturazioa, motibazio falta, pertsonak enpresan mantentzeko arazoak, malgutasun falta eta antzeko gaiak lantzeko proiektua eramango dugu aurrera 2024. urtean eta proiektu hau garatzeko lanketan aritu gara enpresa sailetik.

Kontu honi helduz, eskualdeko 3 enpresekin proiektu pilotu moduan lanean aritu gara. Enpresek ibilbide ezberdinak dituzte euren beharren arabera. Horretarako, enpresetako langile multzo bati diagnosi bat egin zaie. Diagnosi honen emaitzak aztertu ondoren, hausnarketa kritiko bat egingo da. Azkenik, Aldundiko programa ezberdinetara jotzeko aukera izango dute egindako diagnosi honetan oinarrituta.

2024. urtean proiektu honen lanketan jarraituko dugu. Helburua eskualdeko beste 4 enpresekin lanketa egitea da. Horrela eta gai hauek landuz, enpresako eraginkortasun eta efizientzia maila igo eta eskualdeko enpresa sare indartsuagoa lortzen saiatuko gara.

PROIEKTU PROPIOAK

IZAN LIDER

Proiektu honen helburua gaur egungo testuinguru berrira moldatu eta enpresa lidergo erak gaur egungo testuingurura moldatu eta eguneratzea izan da.

Horrela, enpresetako lidergo ereduak eguneratu dira eta honek eskualdea bera ere eraldatzea ekarriko du. Eraldaketa honek enpresei onura zuzenak ekar diezazkiokeela frogatua dago. Langilegoaren inplikazio eta efizientzia handiagoa, talentua enpresan bertan mantentzeko aukera gehiago, berrikuntza era ezberdinak txertatzeko aukeren sorrera, langilegoaren autonomia hazkundera, etab.

Proiektuaren garapenari dagokionez, eskualdeko 9 enpresa aritu dira lanean proiektu honetan. Enpresa talde honekin hiru hilabetez lanean aritu gara zortzi saio ezberdinetan banatuta. Saio hauetan talde identitatea, motibazio ezberdinak, lidergo eraldatzailea, garapen eta ezagutzak edo enpresako egituraketa bezalako gaiak jorratu ditugu. Metodologia aldetik saio parte hartzaile eta dinamikoak planteatu ditugu. Saio praktikoak izan dira eta fokuratze oso arina eman nahi izan diegu. Modu honetara guretzako beti presente dagoen saretze helburua modu eraginkorrago batean lortu dugula ikusi dugu. Izan ere, proiektuaren balorazioa oso positiboa izan da enpresen aldetik bai lidergo eredu berriak ezagutzearen helburuaren aldetik bai 9 enpresa hauen

artean lortu dugun kohesio eta talde zentzuaren aldetik.

TOLOSALDEA DIGITALA

Tolosaldea Digitala eskualdeko Enpresa Gida formatu digitalera pasa eta enpresentzako baliaigarriak diren funtzio gehigarriak sortzera bideratutako proiektu bat izan da.

2021ean Tolosaldea Bat Eginez proiektuak lankidetzarako aukera eta tresnak identifikatzea zuen helburu garrantzitsuenetako bat bezala eta bertan azaldu eta identifikatu zen norabide honetan bideratua egon behar zen lanketa baten beharra. Hau da, proiektu hau zuzenean enpresen behar eta eskakizun baten ondorioz garatuko den lanketa bat izan da.

Horrela, enpresekin sortutako parte hartze mahai ezberdinen ondorioz aurrera eraman dugun proiektua izan da. Mahai hauetan enpresek hainbat ondorio eta urrats definitu zituzten. Horien artean nabarmendu zena “Eskualdeko plataforma bat eratzea” izan zen. Jomugak euren arteko ezagutza areagotu, esperientziak partekatu eta eskualdeko enpresen gaitasunak ezagutaraztea izan daitezke. Sistema honen bidez Tolosaldea Bat Eginezen lortu genuen eskualdeko enpresen informazio guztia eta eguneratutako datu guztiak plataforma honetan eskuragarri jarri ditugu. Ez hori bakarrik, erabiltzaileak informazio hori neurri bateraino manipulatu edo filtratu ahal izango du, geolokalizazioa erabiltzeko aukera dauka eta enpresak euren artean harremanetan jartzeko sistema bat txertatu dugu. Horrela, enpresek plataforma honen bidez komunikatzeko aukera izango dute.

Tolosaldea Digitala plataforma web helbide honetan kokatua dago:
www.tolosaldeadigitala.eus

FORMAZIOA

TOLOSALDEKO IKT ASTEA

Enpresa Digitalaren laguntzarekin antolatzen dugun ekimen honen 2023ko edizioan ere 13 ikastaro ezberdin eskaini dira. IKT ASTEA 15 urtez jarraian ospatzen den ekitaldi bat da.

Aurten, joan den urtean bezala, goizeko saioak, enpresei eta Lanbide Heziketari bideratutakoak, Lehiberri Zentroan ospatu dira. Eguerditako saioak, merkatariak bideratutakoak, Villabonako KZ Gunean eta Tolosako Emari Coworking Espazioan antolatu dira. Arratsaldetakoak Lehiberri Zentroan eman dira. Ikastaro hauek eragile ezberdinei zuzenduak izan dira, hala nola, turismo, ekintzailatza edo herritarrei orokorrean bideratuak.

Tolosaldea Garatzen eta Enpresa Digitalaren arteko elkarlan honetaz gain, hirugarren agente bat ere ekimenaren parte da. Horrela, Mondragon Unibertsitatea ikastaroetan formatzaile bezala izaten dugu. Ondorengo gaiak izan ditugu kontuan 15. edizio honetan:

Goizetan, enpresei eta Lanbide Heziketari bideratutako eskaintzaren barne:

- ZIBERERASOAK: nire enpresa prest al dago egungo mehatxuei aurre egiteko?
- CHATGPT-ik haratago
- Ez duzu zure enpresan LinkedInek duen potentziala aprobetxatzen... eta badakizu.
- Enpresei aplikatutako ChatGPT eta beste sorkuntza AI tresna batzuen erabilera praktikoa.
- Business Intelligence Power BI-rekin

Eguerditan Villabonako eta Tolosako merkataritzara bideratutako eskaintzaren barne:

- Whatsapp Business: erabili aplikazio hau salmenta-kanal handi bezala.
- 2023ko berriak eta 2024. urterako datorrena: Instagramen egunera jarri eta zure profilari etekina atera.

Arratsaldetan, Lehiberri Zentroan eragile ezberdinei zuzenduta:

- Ziber-iruzurra
- Turismoko edukiak sortzea (ChatGPT)
- Adimen artifiziala

Partehartze aldetik, IKT Astea Enpresa Sailak antolatzen dituen ekimen guztien artean jendetsuena izan ohi da urtero. Edizio hau ere bide horretatik joan da. 2023ko edizioan 133 pertsonak hartu dute parte IKT Astean. Zalantzarik gabe, Lehiberri Foroa sortu zen momentutik, gaur egun finkatuen dagoen ekintza da honakoa, eta oso eragile mota ezberdinekin egiten da lan: industria, merkataritza, Lanbide Heziketa, Turismoa, ekintzailatza, etab.

LEHIBERRI ESKOLA

Gure ardatz estrategikoetako baten barnean, formazioan, eta enpresen lehiakortasuna bultzatu nahi izatearen helburu iraunkor horrekin, Lehiberri Eskolaren bostgarren edizioa antolatu da. Lehiberri Eskola enpresek bere lan arlo ezberdinetan izan ditzaketen gabezia edo ahuleziei aurre egiteko balio duen tresna bat da.

Horrela, kudeaketaren profesionalizazioa bultzatu nahian, enpresek zuzenean eskatutako edo guk zeharka identifikatutako gaiak jorratu dituzten 10 mintegi edo jardunaldi ezberdin antolatu dira 2023 urtean zehar 8 gai ezberdinen inguruan.

Formakuntza ekimen hau eragile ezberdinekin elkarlanean antolatu da eta ondorengo gaiak jorratu dira:

- Kontabilitatea
- Salmenta industrialaren gakoak
- Excel aurreratua (3 modulu)
- Jarrera toxikoekin lan egiteko estrategiak
- Denboraren kudeaketa eraginkorra.
- Egoera zailen kudeaketa asertiboa.
- Finantzak, finantzan aditu ez direnentzat

- Belaunaldi erreleboari aurre egiteko 5 tresna.

Enpresek ekimenari egindako harrera positiboa izan da. Guztira, 52 pertsonak hartu dute parte formakuntza saio ezberdin hauetan batuz beste jardunaldi bakoitzean 4 edo 5 enpresa etorri direlarik. Ikastaro hauek urtean zehar burutu izan dira hileroko maiztasunarekin. Normalean 4 orduko iraupena izan dute eta egun bakarreko aurrez aurreko formatuan eman dira.

Balorazio inkestak aztertuta, formazioek izan duten nota orokorra 9,2koa izan da. Emaiza onena izan duen ikastaroa “kontabilitatea” izan da eta hobetzeko alor bezala tailerren iraupen laburra nabarmendu da parte hartzaileen aldetik. Azpimarratzekoa da Excel aurreratuak ikastaroak izan duen partaide kopuru anitza.

LEHIBERRI HIZKUNTZAK

Enpresei mahai gainean jartzen zaien formazio eskaintza ahalik eta osatuena izan dadin, 2023an negozioetarako ingeles ahozko praktika hobetzeko ikastaroa antolatu dugu. Aurten ere Elduaie Hizkuntza Eskolarekin elkarlanean eraman dugu aurrera.

Ingeleseko ikastaro bat antolatu dugu 12 asteko iraupena izan duelarik eta astean behin elkartzuz. Saioek bi ordutako iraupena izan dute eta Lehiberri izan dira.

ERREFERENTZIALTASUNA

PROSPEKZIOA

Enpresa sailaren alor garrantzitsua da prospekzioa. Lanketa honek bi helburu ditu. Alde batetik, eskualdeko enpresei sailaren berri eman, esku artean ditugun proiektu edo ekimenen inguruko informazioa eskaini eta ireki diezazkiekegun aukerak zeintzuk diren ezagutaraztea. Bestetik, enpresek euren arazo, behar edo interesen berri emateak berebiziko garrantzia du. Horrela, eskualdeko errealitatea ezagutu eta gure lana behar horietara moldatzeko balio digu.

Beraz, eskualdeko enpresa sarearekin etengabeko harreman hori izatea ezinbestekoa da sailarentzat eta 2024an ere estrategia horrekin jarraituko dugu.

LEHIBERRI KOMUNIKAZIOA

2023an, urteko ekintzen plangintzari jarraituz, Enpresa Sailak eskualdeko sarearekiko duen komunikazioa sustatzen jarraitu du.

Horretarako, erregularri newsletter digital bat argitaratu da. Newsletter honek hileroko maiztasuna izan du eta agentziaren, enpresa sailaren, Lehiberrira atxikita dauden enpresen edo interes bereziko berrien inguruan hitz egin da. Zentzu horretan, ia komunikazio guztiak formatu honetan egin dira.

Horretaz gain, aurten ere, orain arte erabili ohi ditugun komunikazio bide nagusiak jorratu dira: enpresei zuzenean bidaltzen zaizkien zirkularrak, sare sozialak edota webgunea bera.

LEHIBERRI: TOLOSALDEKO LEHIAKORTASUN ETA BERRIKUNTZA FOROA

Gaur egun, 66 enpresa daude Lehiberrira atxikita. Lehiberri Foroko kideekin burutzen den lanketan, atxikituen arteko ezagutza sustatzea da helburu nagusia.

Lehiberri foroan atxikita dauden enpresekin lanean aritu gara eta elkar ezagutza dinamikak antolatu ditugu. Aurreko urteetan egin zenaren ildotik jarraituta, enpresetako pertsona desberdinak batzeko antolatutako ekimenak antolatu dira. Bazkideen artean talde txikiak osatu eta ezagutza espazioak sortu ditugu. 2023an zehar garatu ditugun proiektu eta ikastaroek ere aukera eman dute enpresa atxikituek elkarrekin espazio eta denbora tarte ezberdinak partekatzeko.

Ekimen hauek eskaintzen dituzten aukeren inguruko asebetetze inguruan, enpresa atxikituak oso pozik agertu izan dira, beraz, 2024an ere ekimen honi jarraipena emango zaio.

Horretaz gain, 2023an Lehiberri Eguna antolatu dugu. Azaroaren 23an enpresa atxikitu guztiak Lehiberri Zentrora deitu genituen guztion arteko ekitaldi bat ospatzeko. Bertara Laboral Kutxako Ikerketa departamentuko zuzendaria, Joseba Madariaga, gonbidatu genuen urtero argitaratzen duten Euskal Ekonomiaren Txostena aurkeztera. Eskualdeko enpresen ere protagonismoa izan zuten. Mahai inguru bat antolatu zen bertako lau enpresekin batera gaur egun talentuak suposatzen duen erronkari buruz hitz egin eta hausnarketa bat egitera. Bukatzeko networking espazio bat sortu genuen eskualdeko enpresen arteko harremana sustatu eta indartzeko.



Tolosaldea

ekintzailetza

garatzen

Programa honen bidez Tolosaldea Garatzenek enplegua sortzeko helburua du. Zerbitzuak enpresa proiektu bat aurkezten duenari asmo hori aurrera eramateko behar duen laguntza guztia ematen dio. Horretarako sortu zen ekintzaileari laguntzeko zerbitzua. Tutoretza pertsonalizatuaren bidez ematen da laguntza eta tutoretza hori arduratzen da enpresa ideia, aldagai garrantzitsuak, arriskuak, eta abar aztertzeaz. Ideiaren bideragarritasuna zehaztu ondoren, Negozio Plana egiten da eta enpresa abian jartzeko behar den finantzaketa bilatzera jotzen da. Enpresa jada abian jarri delarik, zerbitzuak segimendua egiten du, enpresa bat eratzerakoan ezinbestean sortzen diren arazoak konpontzeko eta zalantzak argitzeko.

Enplegua sortzeaz gain, honako helburuak lortu nahi dira:

- Enpresariari edo ekintzaileari laguntza ematea mikroenpresa asmoak garatzeko.
- Ekintzaileei informazioa eta aholkularitza eskaintzea, negozio txikiak abian jarri ditzaten.
- Mikroenpresak eratzeari eta autoenpleguari prestakuntza eta laguntza eskaintzea.
- Tutoretza eta laguntza ematea, zerbitzu honen babespean sortu diren proiektuen segimendua eginez.
- Etorkizuneko enpresariari gaitasun batzuk ematea, oinarrizko kudeaketa erremintak erabili ahal izateko.
- Autoenplegua lan ekimenez bultzatzea.

Zerbitzuak 2023. urtean guztira **37** proiektu aztertu ditu, dagozkien bideragarritasun azterketa sakonak eginda kasu batzuetan eta oinarrizko azterketa ekonomiko finantzarioak eginez beste batzuetan. Aztertutako proiektu horietatik **27** abian dira, beste hainbeste enpresa berri sortuz eta beste biri 2024-eko lehen hilabetetan alta emango zaie.

Aurten beraien enpresa egitasmoa martxan jarri duten ekintzaileen ezaugarriak honakoak dira:

- 23 urtetik hasi eta 56 urtera arteko adin tartea izan dute. 2023ko ekintzaileen batz besteko adina 39,44 urtekoa izanik. Nabarmentzekoa da aurten 50 urtetik gorako 5 ekintzaileek enpresa bat martxan jarri dutela; eta 25 urtez azpiko 2 ekintzaile gaztek ere ekin diola bere ibilbide berriari autoenpleguaren formula erabiliz.
- %44-ak goi mailako ikasketak dituzte (lizentziatura eta diplomatura), % 22 oinarrizko ikasketak eta gainontzeko %34ak prestakuntza maila ertaina dute.
- Ekintzaile guztiek aldeztatik laneko esperientziaren bat izan dute, gehienek besteentzako lan eginez, naiz eta 4 ekintzaileen kasuan ez den izan lehen aldia enpresa bat martxan jartzen dutena. Bat ez beste enpresa berri guztiak eskualdeko herriren batean jarri dituzte ekintzaileek. Eskualdetik kanpokoa Zarautzen jarri da. Mikroenpresarik gehien jarri den herria Tolosa izan da; bertan 17 enpresa ekimen berri kokatuz.
- Ekintzaileen bizileku eta erroldari dagokionean, esan ekintzaile guztiak eskualdekoak direla, nahiz eta jatorri anitzeko pertsonak izan (Maroko, Nikaragua, Honduras, Ekuador, Brasil eta Ukraina)
- Enpresa sortu duten talde sustatzailearen sexuari erreparatzen badiogu, esan aurten %56,25 emakumezkoak izan direla, izan ere 27 enpresa sortu dituzten ekintzaileen artean guztira 32 lagun daude, 18 emakumezko (%56,25) eta 14 gizonezko daude (%43,75). Ondorioz, 5 enpresa ekintzaile bat baino gehiagoz osatua dago (2 Sozietate Mugatu eta 3 Ondasun Erkidego)

27 enpresa - proiektu horiek abian jartzeko guztira egin den inbertsioa **744.057,48** eurokoa da eta inbertsio horrek zuzeneko **46** lanpostu barne biltzen ditu. Proiektu bakoitzean egin den batez besteko inbertsioa **27.557,68** eurokoa izan da, eta **1,64** lanpostu sortu dira batez beste.

Datu esanguratsua bezala adierazienez 744.057,48 euroko inbertsioari aurre egiteko 305.000 euroko maileguak etorri direla erakunde finantzarioetatik eta ia 440.000 euro izan direla talde sustatzailearen ekarpen propioak. Datu hauek ondorioztatzen dute, 2023.urtean eskualdean jarri diren mikroenpresak %59,13 batean talde sustatzailearen ekarpen propioaz finantziatu direla; kanpo finantzaketa inbertsioaren %40,87 izanik.

Sortutako enpresa kopurua eta lanpostuak alde batera utzita, 2023. urtean zehar autoenplegurako asmoren bat azaldu duten 143 lagunentzako kontsultak artatu dira zerbitzuan. Datu honi erreparatuz, esan zerbitzuan artatu diren pertsonetatik %22,37ek jarri duela martxan bere enpresa ekimena.

AUTOENPLEGUA TOLOSALDEAN

2023.eko ekitaldian zehar honako datuak jaso dira:

ARTATUTAKO LAGUNAK	143
AZTERTUTAKO PROIEKTUAK	37
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	27
LANPOSTUAK	46
EGINDAKO INBERTSIOA	744.057,48 €

Sortutako enpresa berrien sailkapena jardueren arabera honakoa litzateke:

- a) Osasun zerbitzuak (fisioterapia, podologia, nutrizioa).
- b) Txikizkako merkataritza (arropa denda, mahai joko salmenta, moda erakusketa gunea, arropa konponketak, ...)
- c) Norbanakoei zerbitzuak (ileapaindegia, estetika, kirol zentroa, igeltsaritza, ..)
- d) Ostalaritza (Taberna, ostatuak, kafetegiak...)
- e) Enpresei zerbitzuak (Kultur zerbitzuak, diseinu grafikoa, komunikazioa, ..).
- f) Beste batzuk (handizkako merkataritza: goxoki, fruitu lehor salmenta, fundiziorako ereduak, ...)

Egitura juridikoa berriz honakoa da:

Sozietate mugatua	Ondasun Elkarteak	Enpresari bakarra
2	3	22

Kontsulta mota ohikoenak gai hauen ingurukoak izan dira zerbitzuan:

- Autoenpleguari buruzko informazio orokorra,
- Enpresak eratzeko laguntzak eta diru laguntzak.
- Finantzaketa (maileguak, leasing, kreditu lerroak, ICO, ...).
- Egitura juridikoak.
- Enpresa martxan jartzeko izapideak
- Lehiberriko haztegi eta Emari Coworking-aren funtzionamendua
- Proiektuen bideragarritasuna.

ZERBITZUAREN BILAKAERA

Azken urteetan autoenplegurako programek izan duten bilakaera ikus daiteke honako taulan:

URTEA	SORTUTAKO ENPRESAK	ZUZENEKO ENPLEGUAK	LEHEN SEKTOREA	ZERBITZUEN SEKTOREA/ MERKATARITZA	INDUSTRIA/ ERAIKUNTZA SEKTOREA
1999	32	77	2	24	6
2000	29	65	2	20	7
2001	23	49	-	20	3
2002	25	42	-	19	6
2003	26	51	-	20	6
2004	28	50	-	28	-
2005	37	70	-	29	8
2006	46	66	-	37	9
2007	39	76	-	32	7
2008	36	51	-	24	12
2009	19	49	-	16	3
2010	22	32	-	21	1
2011	12	18	1	11	-
2012	18	32	-	18	-

2013	24	31	-	24	-
2014	30	41		26	4
2015	42	71	-	42	-
2016	42	76		38	4
2017	29	44		28	1
2018	29	51	-	28	1
2019	27	42	-	26	1
2020	18	33	-	18	-
2021	28	48	-	28	-
2022	28	46		28	
2023	27	47		25	2
Guztira	698	1.225	5	612	81

Autoenplegurako zerbitzuaren bidez sortutako 27 enpresa horiez gain, beste enpresa batzuk eratzeko ere aholkularitza zerbitzua eman da. Ekintzaileek beraiek eskatu dutena jarraituz, beste era bateko laguntza eman zaie, hala nola aholkularitza juridikoa, finantza arloko informazioa, zergei buruzkoa, abian jartzeko gomendioak, diru laguntzak, azterketa ekonomikoak, ...

2023. ekitaldia, iazkoaren oso antzekoa izan da sortutako enpresa kopuruan, artatutako ekintzaileetan, sortutako lanpostuetan eta ekintzaileen profilarri dagokionez. Aldiz, enpresa bakoitza sortzeko egin den inbertsio mailak behera egin du, izan ere 2023.urtean enpresa bat jartzeko eginiko inbertsioa iaz baino %18,35 bat gutxiago izan da.

Enpresa bakoitzak sortutako lanpostu kopurua berdin mantendu da; bataz beste 1,64 lanpostu sortuaz enpresako.

FINANTZAKETA

Zerbitzu honek eskaintzen dituen alderdirik garrantzitsuenetako bat da kanpoko finantzaketarako erraztasuna. LABORAL KUTXA, CAJA RURAL DE NAVARRA, BANCO SABADELL eta LA CAIXA-rekin hitzarmenak ditugu, Tolosaldeko ekintzaileei finantzaketa modu egoki batean ahalbideratzeko. Hitzarmen horien bidez, ekintzaileek zuzenean eta abantaila handiko baldintzetan kreditu pertsonaletara iristeko aukera daukate. Aurten, 27 enpresa horietatik 5k era horretako kredituak eskuratu dituzte.

Datu horiek guztiek garbi uzten dutenez, alde batetik, Tolosaldeko ekintzaileak oso dinamikoak dira, eta bestetik, aholkularitza zerbitzuaren eraginkortasuna erabiltzaile eta erakunde laguntzaile guztiek onartzen dute, baita zerbitzua bultzatzen duten honako herri-administrazioek ere: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzarako Departamentuak, Eusko Jaurlaritzaren Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Sailak, LANBIDEK eta SPRIK.

KULTURA EKINTZAILEAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA eta DINAMIZAZIOA

Kultura ekintzailearekiko sentsibilizazioa eta dinamizazio atalean aurrera eraman diren ekintzak hauek izan dira:

1. Tolosaldeko Goi Mailako Institutuan ekintzaitza jardunaldia: Tolosaldea Goi Mailako Institutuan kultura ekintzailearekiko sentsibilizazio jardunaldi desberdinak burutu dira erdi eta goi mailako zikloak osatzen ari diren ikasleen artean. Jardunaldien helburua, ikasleei ekintzaitzari buruzko informazioa ematez gain etorkizunean lan munduratzeko aukera erreal bezala hausnarketa bat egitea da.
2. Tolosaldeko Goi Mailako Institutuan ekintzaileekin mahai ingurua. Ikasleen ekintzaitza proiektuen epaimahaia.
3. Tolosako ORIXEko Ikasleekin ekintzaitza jardunaldia Lehiberrin: Batxillergoko ikasleei ekintzaileen esku dauden errekurtsoak ezagutarazi eta ekintzaitza munduan lehen urratsak emateko irizpideak.
4. JATORKIN: magrebtar jatorriko emakumei bideratutako saioak. Ekintzaitza lan munduan txertatzeko aukeren inguruko hausnarketa.
5. ELIZONDOKO Lanbide Eskolako Administrazio eta Finantza Goi Zikloko ikasleei kultura ekintzailearekiko sentsibilizazioa, eskualdeko ekintzaileen kasu errealen aurkezpenak eta Lehiberriko haztegi bisita.
6. Enpresa Kudeaketa Ikastaroa Ekintzaile Berrientzat:
 - a) Enpresa ekimen berriak martxan jarri nahi dituzten ekintzaileei bideratutako ikastaroa. Kudeaketa gaietan trebakuntza.

Tailerra

- b) Ekonomia Sozial eta solidariotik ekiten.

Prestakuntza ikastaroak eta tailerrak Ekintzaile Berrientzat

<i>Ikastaroak/Tailerrak/Saioak</i>	Orduak	Partehartzaile
Tolosaldea Goi Mailako Institutua	6	150
Ekintzaile Mahai Ingurua+Epaimahaia	3	65
ORIXE Ikastetxea	4	35
Elizondoko Lanbide Eskola	3	45
JATORKIN Saioa	3	12
Enpresa Kudeaketa Ikastaroa	15	4
Ekonomia Sozial eta solidariotik ekiten	3	7
GUZTIRA	37	318

LEHIBERRI ZENTROKO ENPRESA HAZITEGIA.

2013ko irailaz gero martxan jarri ziren Lehiberri Zentroak ekintzaile berrien esku jartzen dituen 7 haztegiak eta 3 laborategiak, beraien enpresa egitasmoak kokatzeko. Enpresen egonaldia gehienez ere 3 urtekoa dela kontutan izanik (5 urteraino luzatzeko aukera ere aurreikusten da), 2023an hiru enpresa atera ziren eta ez da berririk sartu. 2023ko abenduaren amaiera 2. solairuko haztegiaren betetze maila %28,57 izan da eta %66,66koa sotoko Laborategietakoa.

Haztegi hauen helburu nagusienak enpresa berrien sorrera eta kontsolidazioa, lanpostu berrien sorrera, azpiegitura fisiko baten eskaintza, eta, azken finean, enpresaren lehiakortasun aukerak handiagotzea dira.

Haztegi bakoitza 2 lanposturako egokitutako bulego bat da. Horrez gain, haztegietak erabiltzaileentzat eskuragarri daude 2 bilera-gela, bezero, hornitzaile zein kolaboratzaile desberdinekin lan bilerak egiteko. Halaber, haztegi bakoitzak sarbide independentea eta pertsonalizatua dauka eguneko 24 orduetan, norbanako txartel magnetiko bitartez.

Haztegian kokatutako enpresak 2023ko abenduaren 31ean

Izena Komertziala	Haztegia	Iharduera
IMAZ Arkitektura	2	Arkitektura Tekniko Estudioa
Skanak	7	Eskaneatu/Modelatu/360 ^a Bisitak

SOTOKO LABORATEGIETAN

Emari Wines	Laborategia 3	Ardo Ekologiko/Natural Salmenta
Jakisu	Laborategia 1	Barbakoen Berrikuntza

2023. URTEAN SORTUTAKO ENPRESEN ZERRENDA

Enpresa	Iharduera	Herria
Peluqueria HAJI	Gizonezkoen Ileapaindegia	Tolosa
Inanto Distribuciones	Handizkako Merkataritza (Fruitu lehor, goxokiak)	Irura
Andra eta Gizon Ileapaindegia	Ileapaindegia	Tolosa
IBAL Ereduak	Fundiziorako Ereduak	Irura
Anai Showroom	Moda erakusketa gunea	Tolosa
Agurtzane Belauntzaran	Kultur Zerbitzuak+Komunikazioa	Elduain
Elduaingo Ostatua	Ostalaritza	Elduain
Titare	Jantzien diseinu eta konponketa denda	Tolosa
Osatu Fisioterapia	Fisioterapia Zerbitzuak	Tolosa
Ahorra en Tinta	Bulegoko Material Salmenta	Tolosa
Centro de Estética Nefer	Estetika Zentroa	Zarautz
Galerias MJ	Etxeko jantzien salmenta	Villabona
Hobera	Kirol Zentroa	Tolosa
Issis Maricela y Otra CB	Ostalaritza-Taberna-Jatetxea	Tolosa
Raku Taberna	Ostalaritza	Tolosa
Xirimiri Kafetegia	Ostalaritza-Kafetegia	Tolosa
Blai Komunikazioa	Komunikazio/Diseinu Grafiko Zerbitzuak	Tolosa
Igeltzaritza Zerbitzuak	Igeltzaritza Zerbitzuak	Ibarra
Pazzo 88, S.L	Ostalaritza - Pizzeria	Tolosa
Duna Oinetakoak	Zapata eta Osagarrien salmenta denda	Tolosa
The Old School	Mahai jokoen salmenta denda	Tolosa
Eskuak	Diseinu Grafiko Zerbitzuak	Villabona
Garai Nutrizioa	Nutrizio eta errendimendu zentroa	Tolosa
Podologia Zerbitzuak	Podologia Zerbitzuak	Tolosa
Aitor Martinez Fisioterapia	Fisioterapia Zentroa	Tolosa
Danon Txokoa	Ostalaritza	Ibarra
Ogi Berri Villabona	Okindegia+Kafetegia	Villabona

ENPRESEN HILTZE TASA

2020. urtetik gaur egun arte Agentziako autoenplegu zerbitzutik sortu diren enpresen hiltze tasari buruzko azterketa aurrera eraman da. Hau horrela, 2020, 2021 eta 2022 urteetan martxan jarri ziren enpresekin kontaktuan jarri ondoren segidako datuak bildu ditugu:

<i>GUZTIRA martxan jarriak 2020</i>	18
<i>MARTXAN JARRAITZEN DUTE</i>	15
<i>UTZ I/ITXI</i>	3
HIL TZE TASA	%16,67
BIZI IRA UPEN TASA	%83,33

<i>GUZTIRA martxan jarriak 2021</i>	28
<i>MARTXAN JARRAITZEN DUTE</i>	23
<i>UTZ I/ITXI</i>	5
HIL TZE TASA	%17,86
BIZI IRA UPEN TASA	%82,14

<i>GUZTIRA martxan jarriak 2022</i>	28
<i>MARTXAN JARRAITZEN DUTE</i>	27
<i>UTZ I/ITXI</i>	1
HIL TZE TASA	%3,58
BIZI IRA UPEN TASA	%96,42

EKINTZAILETZA FOROETAN PARTEHARTZEA

Tolosaldea Garatzenek eskaintzen duen autoenplegu zerbitzua hobetu eta berri-asmoz, etengabeko hobekuntza prozesuari jarraituz, Garapen eta Gipuzkoako autoenplegu teknikarien foroan parte aktiboa hartzen da urtean zehar. Eran berean, Garapeneko ekintzailtza komitean ere parte hartzea aktiboa eduki du garapen agentziak eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sortutako fasilitadore mahaian.



Tolosaldea

enplegua garatzen

Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Saila, besteak beste, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zentro kolaboratzailea da. Tolosaldeko Lanbide zerbitzuak arreta ematen dien erabiltzaile guztiek zerbait dute komunean: lanpostu bila ari dira gutxiago edo gehiago. Hala eta guztiz ere, lan munduan txertatzeko arazo gehien duten kolektibo horietan arreta berezia jarri ohi dugu. Kolektibo gisa bereizten dituzten eta topatu ditugun gabeziak edo zailtasunak hainbat arlotakoak izan daitezke: gizartekoak, ekonomikoak, familiakoak edo kulturalak.

2023an erabiltzaileak 600 ordu lan orduko atentzio pertsonalizatua jaso dute Tolosaldea Garatzeneko Lanbidera orientazio bila, lanpostu baten bila, prestakuntza edo duten lanpostua aldatzeko asmoarekin etorri direnak. Eta horrez gain enplegu zentroan 300 kontsulta indibidual izan dira.

LANA EDO PRESTAKUNTZA ESKATZAILEAK

a) Orientazioa: Gure zerbitzuaren ardatzetako bat da. Enplegagarritasun Diagnosiaren bidez lan merkatuan sartzeko plan pertsonalak diseinatzen ditugu .

Antzemandako beharrak:

- Lan merkatuari buruzko informazio gabezia
- Trebakuntza orokorreko ikastaroei buruzko informazio gabezia: arautua edo ez arautua
- Hautaketa prozesuari buruzko informazio gabezia (curriculum, aurkezpen gutuna, elkarrizketak, test psikoteknikoak, taldeko dinamikak...)
- Tolosaldeko egitura industrial ez ezagutzea
- Gehien kontratatzen dituzten lanpostuak ez ezagutzea.

Kolektiboak:

- Lehen lanpostuaren bila ari diren gazteak (lizentziatuak, diplomatuak, Lanbide Moduluetan prestakuntza duten pertsonak...)
- Eskualdean itxi diren enpresetako langileak
- Etorrinen kolektiboa
- GGD jasotzen dutenak , gizarte zerbitzuetatik bidaliak

- Lan merkatuan berriro sartzeko asmoa duten emakumeak
- Enplegua hobetu nahi duten pertsonak
- Prestakuntzako programetan parte hartu nahi duten pertsonak

b) Enplegu Zentroa: Zentroan, lehenik eta behin, aholkularitza pertsonalizatua eskaini ohi dugu. Gure helburua erabiltzaileak eskatu digun hori topatzea da eta, horretarako, behar duen babes eta baliabide guztiak eskaini ohi dizkiogu. Zentrorra etortzen den edonork enpleguaren edo informazioaren bilaketa prozesu horretan hainbat bideren arteko aukeraketa egin, eta mugitu egin behar duela ulertarazten saiatzen gara, arakasta bere ahalegin pertsonalaren arabera izaten baita.

Erabiltzaileen tipologia oso anitza da.

- Zalantzak argitzea - Informazio eta aholkularitza pertsonala
- Lan eskaintzei buruzko informazioa
- Prestakuntzako eta enpleguko eskaintzetan izena ematea
- Zure aurkezpena prestatzea – Enplegua bilatzeko tresnak.
- Posta elektronikoko bidezko kontsultak
- Nora jo ezagutzea
- Egunean egotea
- Ordenagailuak erabiltzea

Erabiltzaileak prozesu ugarian sartzeaz gain, eskatzaile ugari egindako kontsulta kopurua sartu dugu atal batean. Enplegu zentroan egindako ekintza ezberdinak dira.

LAN MERKATUA – LAN ESKAINTZAK

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Lan	42	63	113	129	134	182	196	206	101	119	125	122
Lanpostuak	46	67	115	135	149	202	231	235	108	126	135	164

Aipatzekoa eskualdeko udalei lan eskaintzak kudeatzeaz gain selekzio prozesuetan laguntzeko zerbitzua ere eskaini diegula: hautagaiak lortzen, elkarrizketak egiten, euskarazko frogak, frogak praktikoak, balorazioak...

Tolosaldea Garatzeneko enplegu saileko Enplegatze zerbitzua lan bila ari diren edo beren egoera hobetu nahi duten pertsonen eta lanpostuak bete behar dituzten enpresen arteko bitartekaritzarako erakunde gisa indartu egin da; Zentroak erantzuna eman dien lan eskaintzei buruz, aipatu beharrekoa da ondorengo sektoreetakoak direla eskaera gehien jasotzen duten postuak.

Arlo guztietako lan eskaintzak kudeatu ditugu eta gehienetan Lanbideko aplikatiboa erabili dugu lan eskaintza eskatzaileekin gurutzatzeko. Nolanahi ere Lanbideko aplikatiboan sartzen ditugun datuak maila estatistikoan bakarrik itzultzen zaizkigu. Hori dela eta, Tolosaldea Garatzenek duen datu base propioa ere elikatzen hasi gara, ezinbestekoa zaigulako datu gehiago izatea gure orientazio lana eraginkorragoa izan dadin. Eta ondorioz gero eta gehiago dira lan merkatuan lanpostu hobe baten bila edo lan bila dabiltzan pertsonen datuak.

ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA

Alde batetik 2022-2023ko planaren jarraipena eta justifikazioa egitea egokitu zaigu 2023an eta bestetik 2023-2024ko enplegu planaren eskaera egin dugu.

1.- 2022-2023ko ENPLEGU PLANA

Tolosaldea Garatzenek aurkeztu zuen eskaera eskualdeko 28 udalerrien izenean, 2022-2023. urterako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdian kontratazioetarako laguntzak kudeatzeko.

2023. urtean kontratazio horien jarraipena eta justifikazioa egin behar izan dugu 2023ko irailaren 30erako.

Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluak onartutako 2. motako kontratuak 26 izan baziren ere, 3 kontratazioa bertan behera erori dira arrazoi desberdinengatik.

Hauek izan dira diruz lagundutako kontratazioak:

	LANBIDERI EGINDAKO ESKAERA	EGINDAKOAK	LANBIDEK EMANDAKO DIRU LAGUNTZA (euroak)
1. MOTA	3	2	25.000
2. MOTA	33	23	181.008
GUZTIRA	36	25	206.008

2.- 2023-2024ko ENPLEGU PLANA

2023. urtean 2023-2024ko enplegu plana ere martxan jarri dugu. Hauek izan dira gure eginkizunak;

- Planean aurkeztu beharreko akzioak Tolosaldea Garatzeneko Administrazio kontseiluan proposatu eta adostu.
- Enplegu planeko akzioen aurkezpena Lanbide zerbitzuan
- Kontratazioetarako lan eskaintzen gestioa
- Administrazio kontseiluaren aurrera onartuko diren behin behineko kontratazioen proposamena zehaztea.

2023ko deialdian aldaketa garrantzitsuena izan da kontratatutako langabetuak emakumeak izanez gero eta honako kolektiboetakoak izanez gero diru laguntza handiagoa izango dutela:

- 1.- DSBEaren titularrak edo onuradunak.
- 2.- 35 urtetik beherako pertsonak.
- 3.- Luzaroko langabeak. Iraupen luzeko langabetutzat.
- 4.- 55 urtetik gorako pertsonak.

Honakoa izan da LANBIDE-ri egindako eskaera diruz lagundu beharreko kontratazioei dagokionez:

1. TIPOLOGIA

Garapen agentzia eta 3. Sektoreko entitateak	Postuak	Laguntza
Tolosaldea Garatzen	1	12.500
Asociación Jatorkin Al-Nahda	1	12.500
Katea Legaia	1	12.500
Sukalbide Ostalaritza Zerbitzuak	1	12.500
GUZTIRA	4	50.000 euro

2. TIPOLOGIA (ENPRESENTZAKO LAGUNTZA)

Kontratazioak	Lanbideri eskatutako diru laguntza
16 gizon	128.000 euro
16 emakume	140.800 euro
GUZTIRA	268.800 EURO

LAGUNTZA	LANPOSTUAK	ZENBATEKOA
1 TIPOA Enplegua lantzen duten erakundeentzat	4	50.000 Euro
2 TIPOA Enpresentzat	32	268.800euro
GUZTIRA		318.800 euro

Tolosaldea Garatzenek kontratazioei jarraipena egin beharko die kontratatu eta handik urtebetera langile horiek enpresa horretan lanean jarraitzen dutela ziurtatzeko.

ETXEKOLAN PROIEKTUA

Etxeko langile moduan ari nahi duenarentzako edo etxeko lanetarako pertsona bila dabilenarentzako zerbitzua ematen dugu.

- **Etxeko edo zaintza lanetan aritu nahi duenarentzat:** Lanerako orientazioa eskaintzen dugu, kontratazioaren baldintzen inguruko informazioa, lan poltsan izen eman eta formakuntza jasotzeko aukerarekin (gaitasun ziurtagiriak, euskara, etab.).
- **Etxean lan egiteko norbait behar duenarentzat:** Doako aholkularitza eta bitartekaritza eskaintzen diogu, hautaketa prozesuan lagunduz.
- **Informazio zerbitzua:** Kontratatzeko garaian, eskubide eta betebeharren, soldaten, kontratu moten, oporren, egun eta ordu libreen, kotizazioen,

baimenen, kaleratzeen, gizarte segurantzian alta emateko pausuen...inguruan aholkularitza eskaintzen dugu.

Aipatzekoa da sektore honetatik datozen lan eskaintzen gorakada azken urteotan. Agerian uzten du gizartean gertatzen ari den bilakaera demografikoaren ondorioak agertzen hasi direla.

2023. urtean 31 lan eskaintza kudeatu ditugu programa honen barruan. Horietatik 17 barne erregimenen lan egiteko izan dira eta 14 lan eskaintza orduka lan egiteko.

TOLOSALDEALAB INKLUSIO ETA ENPLEABILITATE MAHAIA

2021. urte hasieran erakundeen arteko ekintza, lankidetzeta eta berrikuntza oinarri izango dituen espazioa sortu zen, TolosaldeaLab.

Horretarako ezinbestekoa izan zen eskualdeko entitateen arteko mahai hori sustatu eta sostengatuko duen egitura bat izatea, eta, nola ez, eragileek bertan parte hartzea. Horrek parte hartzaileen arteko proiektuak sartzeko testuingurua eskaini zuen erakunde bakoitzak bere esparruan lan eginez eta aldi berean beste erakundeekin lan eginez.

TolosaldeaLab-eko PARTE HARTZAILEAK

- Tolosaldea Garatzen, enpleguko arduraduna eta saileko teknikaria
- Tolosaldea Garatzeneko migrazio eta aniztasun teknikaria
- Adinkide
- Oneka pentsiodunak
- Harizpe, jubilatuta eta pentsionisten elkarte
- Jatorkin
- CEAR
- Zutani
- Gurutze Gorria
- Sutargi
- Katea Legaia
- Asanblada feministako kidea
- Saiaz Mankomunitateko gizarte zerbitzua
- Inmakulada zentroko zuzendaria
- Lanbide
- Tolosako Osakidetzako gizarte langilea
- Tolosako Berdintasun Saileko teknikaria
- Tolosako Enplegu Saileko teknikaria eta arduraduna
- Tolosako egoitza-kaserra
- Tolosako Udaleko gizarte-langilea
- Afagi
- Iurramendi Egoitza
- Orixe Institutua, zuzendari ohia eta orientatzailea
- Peñasal Kooperatiba
- Irurako Gizarte langilea

2021 eta 2022 urtean TolosaldeaLab mahaitik ateratako proiektuetan lanean aritu ginen honako entitateak: Katea Legaia, Fundación Emplea, Peñasal Koop., Jatorkin eta Tolosaldea Garatzen. Programako parte hartzaile kaptazioan egindako lanari esker guztira 24 partehartzaile izan dira onuradunak eta bi ziurtagiri profesionaletan prestatu dira.

2022an mahaia elkartu eta 2022tik 2024era arteko proiektuak definitu eta Foru Aldundiko Elkarrekin lanean diru-laguntzaren bitartez lanean aritu gara. Beraz, proiektu hauetako eragileak elkartu gara 2023an.

TOLOSALDEALAB ELKARREKIN

Elkar Ekin Foru Aldundiaren programan 2023ko edizioan Tolosaldea Garatzenek taldeburu moduan bi proiektu abiatu ditu:

1.- Josi eta Josi: Zutani, Fundación Emplea, Jatorkin, Inmakulada ikastetxea eta Tolosaldea Garatzen erakundeak bideratutakoa. Bi talde dira guztira 2023. Urtean indarrean egon direnak. Joskintzako ziurtagiri profesionala lortzea da helburua eta enpresetan praktikak egiteko aukera izatea. Lehenengo taldean 13 pertsonak lortu dute ziurtagiria eta 2. Taldea 2023ko azaroan hasi denez 2024an bukatuko dute prozesu guztia.

2.- Sukaldean bai: Peñaskal Koop. eta Tolosaldea Garatzen erakundeek bideratutakoa. Sukaldeko ziurtagiri profesionala lortu dute parte hartzaile guztiek. 15 izan dira guztira.

TOLOSALDEAN LANEAN

Tolosaldea Garatzenek Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuaren gonbidapena jaso zuen 2022an Tolosaldean gizarteratzeko eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten iraupen luzeko langabeen gizarteratze eta laneratze osorako ibilbideen tokiko proiektu pilotu batean parte hartzeko.

Egoera horretan dauden pertsonentzako gizarterako ibilbide soziala eta laborala garatu ostean 2022an martxan jarri ginen eta hasierako prestakuntza eskaini diegu proiektuko parte-hartzaileei. Lanbiderekin batera egindako selekzio prozesu baten ondoren, guztira, eskualdeko 10 parte-hartzaile daude proiektuan, eta bi hilabeteetan (240 ordu) Tolosaldea Garatzenek prestakuntza eman die ondorengo gaietan: Mekanografia, alfabetatze digitala, talentua, lan merkatua, lana aurkitzeko teknikak...

2022ko abendutik aurrera prestakuntzako-kontratu batekin 10 hilabetez Tolomendik kontratatu ditu 2023ko urri arte. Lanorduaren % 35ean prestakuntza teknikoa jaso dute Fondo Formación prestakuntza entitatearen bitartez funtzio anitzeko peoi bezala (eraikuntza gaietan, pintura, iturgintza, lorezaintza, garbiketa gaietan...) eta lanorduaren % 65an lana egin dute ikasten ari zirena praktikan jarritz. Eskualdeko udalerrietan egin dute lan eta ibilbide guztian Tolosaldea Garatzenek orientazioa eskainiko die.

TXARAMA EHUNTZEN

Leaburuko Udalak Tolosaldea Garatzeni 2023ko udan Txarama Ehuntzen proiektuaren kudeaketan parte hartzeko enkargua egin zion. Eta proiektu honekin aritu gara 2023ko bigarren sei hilekoan. Proiektu hau 2023an hasi eta 2024ko abenduan amaituko da.

Proiektuaren xedea da gizarteratzeko eta lanerako txertatzeko langabezia dauden 10 pertsonen osatutako talde batekin, ibilbide integratu baten enplegu-formakuntza

programa bat burutzea.

10 pertsona hasi dira proiektuan, denak eskualdekoak dira eta laneratzeko zailtasunak dituzte. Prestakuntza 2023ko urrian hasi zuten eta kontratazio epealdia 2024eko urtarrilean. Prestakuntza eta kontratazio epea 12 hilabetekoa izan arren proiektuaren justifikazioa 2024eko abenduan amaituko da.

Leaburuko Udalaren enkargua Tolosaldea Garatzeni ondorengoa izan da:

- Proiektua gainbegiratzea
- Eusko Jaurlaritzak alor honetan eskatzen dituen txostenak egin eta bidaltzea
- Programako langileen hautaketa prozesuak bere gain hartzea
- Prozesuaren jarraipena egitea



Tolosaldea

turismoa garatzen

HELMUGA TURISTIKOAREN KUDEAKETA

Helburua Tolosaldea turismo-helmuga bilakatzeko lana modu koordinatu eta parte-hartzailean gure gain hartzea da eta horretarako hainbat mahai baliatzen ditugu.

- **Tolosaldeko Turismo Mahaia:** maiatzaren 22an bildu zen.
- **Tolosa Gourmet Produktu Klubaren Kudeaketa mahaia eta Batzarra:** martxoaren 6an bildu zen Aburuza Sagardotegian eta urteko bigarren kudeaketa mahaia urriaren 3an bildu zen. Premium segmentuko lan mahaia sortu da eta lehen bileran ekainaren 5ean izan zen.
- **Txindokiko Itzala lan Mahaia:** Printza Abentura SL., Abaltzisketako udala eta Tolomendirekin batera osatzen dugu mahai hau: maiatzaren 10ean bildu zen.

Eskaera eta beharren arabera, bestelako azpisektore edo lan mahaia deitu edo deitzen gaituztenetan parte-hartzen dugu.

LEHIAKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA HOBETZEKO PROGRAMAK

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa

Ekainean Basquetour S.A.-k antolaturiko Kode Etikoaren diploma banaketa ekitaldian urtez urte programan parte-hartu duten Tolosaldeko 22 enpresei eman zitzaien ziurtagiria. 2023rako Basquetour agentziarekin adostutako planifikazioan, aurreko huez gain, 9 enpresa berriekin hasia aurreikusi zen.

Aloña Garmendia lehiakortasun teknikariak hauen jarraipena egiten du, egin beharreko formazio eta izapidetzeak bete ditzaten lagunduz.

2023eko urte bukaeran, dena 27 enpresa ditugu programa honetan parte-hartzen.

Turismo alorreko ekintzaileak artatu ditugu: turismo alorreko 7 negozio ideien inguruko kontsultak artatu ditugu.

TOLOSALDEAREN ERAKARGARRITASUNA ETA ESPERIENTZIA TURISTIKOA HOBETZEKO TURISMO PROIEKTUAK

TURISMO ENOGASTRONOMIKOA

Tolosa Gourmet Produktu Kluba

Helburu nagusia TOLOSALDEA, gastronomia turismo-gune moduan promozionatzea eskualdean dauden sinergiak bultzatuz bere posizionamendua hobetzeko. Tolosaldeko turismo gastronomikoaren baliabide, sektore, produktu eta zerbitzu guztiak parte hartzea lortu nahi da, eta esperientzia berriak sortuz eta eskaera-segmentu berriak sortzeko ahalmena indartuz, egonaldiak luzatzea, desestazionalizazioa bultzatzea eta fluxuak eskualde osoan zehar banatzea.

- Klubeko bazkideak 2023an: **44 establezimendu**
Altak: Alondegia eta Bertakoteka pintxo tabernak. Tolosa
Bajak: Route 33. Alegia
Aldaketa: Txumitxa ekoizlea taberna gisa agertuko da. Ibarra

2023an honako ekintzak burutu dira:

- Martxoak 3-4-5, Berastegin ospatu zen Be! Artzantza asteburuan, artzain bordetara bisitak antolatu ziren Astotrek, asto alokairu enpresarekin batera eta artzantzari lotutako produktua sortu zen, ekitaldian sustatu eta gerora ere eskaini dena:

[Astotrek - Tolosaldea Turismo](#)

Astoekin artzai bordetara egin ziren irteeretan parte-hartu zuten pertsona kopurua:
50 pertsona goizean.
30 pertsona arratsaldean.

- Martxoak 25ean berriz, Hika Upategiak eskaintzen duen esperientzia turistikoa sustatzeko ekitaldia lagundu zen:

<https://www.tolosaldea.eus/esperientzia/bodega-hika/>

- Tolosaldeko gida gastronomiko berria argitaratu genuen Aste Santurako EU-ES-CAT bertsioetan.
- **Basquefest ekitaldian**, Aste Santuko ostegunetik larunbatera (apirilak 6-9, Bilbo), Gourmet Txoko karpan stand-a jartzea eta dastaketak eskaintzea:
 - Apirilak7, ostirala: 13:00 eta 17:00 Balerdipeko erleak “Garai eta loraldi desberdineko ezti dastaketa”
 - Apirilak8, larunbata:17:00-18:00 Rafa Gorrotxategi “Txokolate dastaketa”

- www.tolosaldea.eus-en eduki gastronomikoa garatu da:

[Autore sukaldaritza: saritutako eta gomendatutako jatetxeak - Tolosaldea Turismo](#)
<https://www.tolosaldea.eus/zer-egin/non-eta-zer-gosald>
<https://www.tolosaldea.eus/zer-egin/tolosaldeko-ostatuak-1/>
- **Iragarkiak:**
 - o **Más gastronomía** gehigarrian faldoia eta publieerreportaia:
[Los 6 mejores restaurantes de Tolosaldea | El Diario Vasco](#)
 - o Basque Luxury aldizkarian 2 orriko publieerreportaia.
- Abenduak 3an, Sagardoaren ibilbidearen dinamizazio ekintza bat antolatu da Adunan: bisita gidatua eta dastaketarekin.
- Tolosaldeko jatetxeetan bikaintasuna sustatzeko programa jarri da martxan, 6 jatetxe parte-hartzailerekin:
 - o Hika gastronomia
 - o Casa Julián erretegia
 - o Nicolás erretegia
 - o Ama jatetxea
 - o Bailara jatetxea
 - o Iriarte jatetxeaGida gastronomikoetan duten posizionamendua hobetzeko aholkularitza eta formazioa jasoko dute bakoitzak eta honakoa dokumentuak jasoko dute:
 - o Diagnostikoa eta ekintza plana.
 - o Ekintza plan honetako neurriak martxan jartzen lagunduko zaie.
- **Tolosaldeko eskaintza gastronomikoa prentsa eta familiarizazio bidaiei erakusteko proposamenak biltzen dituen txostenaren prestaketa egin da.**

NATURA TURISMOA

2023an Tourra pasatu den urtea izanik, 2022an, Tolosaldeetik Tourra pasatzen den tokiak ezagutzeko 2 ibilbide zikloturista landu ziren, wikiloc-era igo eta argazki profesionalak atera ziren.

2023an, horien promozioa egiteko, eta Itzuliako etapa baten bukaera Villabonan izango zela probestuz, “Libro de Ruta” delakoan iragarkia jarri zen.

ESPERIENTZIAK ETA PLANAK

- Berria Aldizkariaren Oporrak Euskal Herrian gehigarrian 2 orriko publieerreportaia argitaratu genuen.
- **Minube bidaietako orrialde espezializatuan promozio kanpaina:**

Kanpainaren hasiera 2023ko ekainaren 18an izan zen ondorengo edukiarekin:
[¿Qué hacer en Tolosaldea? Experiencias que no vas a repetir en otro destino \(minube.com\)](#)

Edukiak izandako inpaktua:

Inpresioak: 1.000.000

Klik kopurua: 2.008

CTR: 0,20%

Sare sozialetan izandako inpaktua:

Inpresioak: 167.804

Pertsonak: 124.703

Interakzioak: 169

Albiste buletina abuztuaren 7an bidali zen emaitza hauekin:

Zenbat emailetara bidaltzen den albiste buletina: 430.000

Irekierak: 160.106

Irekiera tasa: 37,23%

Klik kopurua: 11.129

CTR irekieretikiko: 6,95%

CTR bidalketekikiko: 2,59%

FAMILIA TURISMOA

Euskadi mailako produktu klub honetan Tolosaldeko 14 establezimenduk parte-hartzen dute:

ABALTZISKETA

Txindokiko Itzala abentura parkea

Larraitz-gain jatetxea

ALKIZA

Lete apartamentuak

Fagus Alkiza interpretazio zentroa

ALTZO

Altzoko ostatua

ASTEASU

Saskarate nekazalturismoa

Lizolagoiena nekazalturismoa

Iturri-ondo jatetxea

TOLOSA

TOPIC Museoa

Rafa GorrotxategirenTxokolatearen Museoa

Bide-Bide hotel eta jatetxea

Botarri jatetxea

Tolosaldeko turismo bulegoa

OREXA

Orexako ostatua

2023ko Martxoaren 27an Basquetour Agentziak Tolosako Topic Zentroan Familia Turismoaren inguruko jardunaldiak antolatu zituen eta Tolosaldeak,

jardunaldiak antolatzen laguntzeaz gain, hizlari gisa parte-hartu zuen.

- **Noticias taldean Maiatzak 31tik uztailaren 01a** bitartean ondorengo kanpaina egin zen: ihesaldietarako gehigarri berezian publie-reportaia, bannerrak digitalean, iragarkia taldeko portada guztietan eta orri osoko iragarkia talde osoko IN aldizkarian.
- Hurrekin bisitatzen gaituzten familiei begira, eskualdeko mapa turistiko bat prestatu dugu, atzealdean haurrak entretenitzeko jolasekin. Aldi berean, mapa honen difusioa egiteko, spot batzuk diseinatu ditugu sareetan promozioa egiteko, maparen irudietan oinarritua.

https://www.instagram.com/reel/C0bzILKOFIw/?utm_source=ig_web_copy_link&igsh=MzRlODBiNWFlZA==

- Eloisa Patat eduki sortzailearekin elkarlana Tolosaldeko sare sozialen dinamizaziorako:

Edukiaren laburpena:

12 posten iritsiera: 155.734 kontu

Jasotakoak: 869 aldi

Like-ak: 3.623

Komentarioak: 270

Sortutako istorioak: 100

Istorio bakoitzaren batz besteko iritsiera: 1500 kontu.

MARKETINEKO KOMUNIKAZIO INTEGRATUA

www.tolosaldea.eus webgune berria

2022an webgune berria martxan jarri genuenetik (maiatzak 1) urte bukaera arteko datuak aurtengoekin konparatuta, %66ko igoera izan dugu erabiltzaileetan.

2023an izandako bisitariak: 40.000 bisitari.

Webguneko bisitarien jatorriari dagokionez, lehen hiru jatorri errepikatuenak Espainia, Frantzia eta Estatu Batuak dira. Hiri errepikatuenak hurrenez hurren: Madril, Bilbo, Donostia eta Bartzelona.

Lehen seihilekoan, “página no encontrada” oharra, 4. orririk bisitatuena zen. Bigarren seihilekoan aldiz, 6. postura pasatzea lortu da. Orririk bisitatuena hurrenez hurren:

- Tolosaldeko harrera orria.
- Agenda.
- Tolosako San Juan jaiak
- Non jan Tolosako babarrunak
- Argizaiola

Sare sozialen kasuan, goranzko joerari eustea lortu dugu:

	Twitter (jarraitzaileak)	Facebook (jarraitzaile)	Instagram
2020	921	3.750	1.350
2021	926	4.160	1.668
2022	938	4.199	1.847
2023	945	4.239	2.240

TURISMO AZOKAK

Ondorengo ferietan hartu dugu parte, Eusko Jaurlaritzak nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako standetan, Tolosaldea helburu turistikoaren berri emateko liburuxkak bidali eta arta koordinatuz:

- Urtarrila: Fitur (Madril).
- Maiatza: Expovacaciones (Bilbo)
- Azaroa: Intur (Valladolid)

INFORMAZIO ETA HARRERA ZERBITZUAREN KUDEAKETA

Tolosaldeko turismo bulegoak 2023an bezeroekiko izan duen irekiera ordutegia:

Behe-sasoian:

- Asteartetik larunbatera: 11:00 – 14:00 / 16:00 – 18:00
- Igandetan: 10:00-14:00

Goi-sasoian: Aste Santua, Uztaila eta Abuztua

- Astelehenetik Igandera: 10:00 – 14:30 / 15:30 – 19:00

Tolosaldeko turismo bulegoan 9.727 pertsona artatu ditugu, %1,7ko igoera izan da aurreko urtearekin alderatuta eta estatu eta atzerriko bisitarietan nabaritu da.

2023/01/01/ 2023/12/31 Jatorria	Bisitariak												Total
	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	
Herrikoa	82	170	97	87	116	204	102	143	68	203	143	102	1.517
Lurraldea	28	36	88	62	45	54	43	58	41	50	66	79	650
Euskadi	14	153	90	183	93	140	61	52	40	51	119	135	1.131
Estatua	45	115	105	456	132	198	631	1.362	385	346	241	251	4.267
Atzerria	30	73	249	203	207	198	279	372	186	212	115	38	2.162
TOTAL	199	547	629	991	593	794	1.116	1.987	720	862	684	605	9.727

Txindokiko Itzalean 2023an 2.813 bisitari gerturatu dira, aurreko urtea baino %51 gutxiago.

2023/01/01/ 2023/12/31 Jatorria	Bisitariak								
	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Total
Lurraldea	56	241	285	896	585	196	116	31	2,406
Euskadi		19		71	50	21	8		169
Estatua		27	6	5	49	38			125
Atzerria		1	59		33	15	5		113
TOTAL	56	288	350	972	717	270	129	31	2.813

Bisita gidatuen eskaintza

Tolosaldeko turismo bulegoak 2023an zuzenean kudeatzen dituen bisita gidatuak honakoak dira:

- Tolosako Alde Zaharra (asteartetik larunbatera)
- Tolosako Azokara bisita gidatua (larunbatetan)
- Andre Maria elizara bisita gidatua (larunbatetan)

	2022	2023
Tolosako Alde Zaharra	776	1.120
Tolosako Azoka	82	199
Andre Maria Eliza	114	271

Guztira: **1590 pertsonak** egin dituzte turismo bulegotik eskaini diren bisita gidatuak, aurreko urtearekiko **%50eko igoera** izan da. **4,92ko balorazioa** jaso dute bisita gidatuek (1etik 5era).

TOLOSALDEKO OSTATU ESKAINTZA

2023 urtea Tolosaldean **55 establezimendurekin** bukatu dugu (2022arekin alderatuta 3 gehiago), guztira **602 plaza** eskaintzen dituztenak.

- 3 hotel, 158 plazekin (Bidania-Goiatz eta Tolosan).
- 6 pentsio, 78 plazekin (Anoeta, Ikaztegieta, Alegia eta Tolosan). **Ikaztegieta Ostatua pentsioa ireki da 2023an.**
- 15 nekazalturismo eta landetxe, 138 plazekin. (Aduna, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Gaztelu, Larraul, Tolosa, Villabona, Zizurkil).
- 2 turismo aterpetxe: 77 plazekin (Aduna eta Asteasun)
- 2 establezimendu apartamentu turistikoak eskaintzen dituztenak: 26 plaza denera Alkiza eta Orexan.
- 21 Etxebizitza turistiko, denera 110 plaza eskaintzen dituztenak (Abaltzisketa, Altzo, Amezketa, Asteasu, Berastegi, Hernialde, Ikaztegieta, Tolosa, Villabona eta Zizurkilen). **2023an 3 establezimendu berri ireki dira.**
- 6 establezimendu logelak eskaintzen dituztenak, denera 23 plaza (Amezketa, Abaltzisketa, Berastegi, Larraul eta Villabonan).

Okupazioa

Tolosaldeko Nekazalturismo eta landetxeen urteko bataz besteko okupazioa **2 puntu igo da** 2022arekin alderatuta, * eta **hotel eta pentsioek **3 puntu egin dute gora** eta kategoria gorenekoek berriz **12 puntu**.

Okupazio tasa logelako (%)

2023	Nekazalturismo eta landetxeak	* eta **Hotel eta pentsioak	***eta**** Hotelak
URTARRILA / ENERO	6,63	36,01	54,64
OTSAILA / FEBRERO	24,93	46,08	69,39
MARTXOA / MARZO	20,83	41,91	66,60
APIRILA / ABRIL	36,86	45,62	65,42
MAIATZA / MAYO	29,72	46,58	67,34
EKAINA / JUNIO	38,28	51,25	77,67
UZTAILA / JULIO	68,35	70,44	79,98
ABUZTUA / AGOSTO	75,27	75,47	87,45
IRAILA / SEPTIEMBRE	37	56,23	77,16
URRIA / OCTUBRE	33	51,24	73,36
AZAROA / NOVIEMBRE	28	49,06	66,47
ABENDUA / DICIEMBRE	36	43,45	56,31
URTEKO BATAZ BESTEKOA	36,22	51,11	70,15

Iturria: Eustat (Gipuzkoa barnealdea) eta Nekatur (Tolosaldea)

Tolosaldea Info: Tolosaldeko Turismo hilabetekaria online

Aldizkari honen helburua eskualdean turismo sektorean parte-hartzen duten eragile guztien interesekoa den informazioa bildu eta zabaltzea da. Hileroko boletina 2 hizkuntzetan egiten dugu eta mailchimp bidez 158 kontakturi bidaltzen diogu.

TOLOSALDEKO TURISMO JASANGARRIAREN PLANA

2021 urtean garatutako Tolosaldeko Marketin Plana oinarri hartuta, 2022ko turismo jasangarriko planen deialdian aurkeztu genuen Tolosaldeko Plana, deialdira egokitzeko behar zituen moldaketak egin ostean. 2022ko abenduan argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean Euskadiko Turismo Jasangarriaren Planaren baitan, Tolosaldeko Plana bere osotasunean onartua izan zela.

Aurrekontua: 1.980.400€
 Exekuzio epea: 2023-2025
 Finantzazioa: 100%

4 ardatzetan egituratuta dago plana:

Trantsizio berde eta jasangarria

- Fagus Alkiza eta Pello Zabala gunea interpretazio zentroen hobekuntza
- Erosioaren aurkako eta biodibertsitatea hobetzeko neurriak

Energia eraginkortasuna hobetzea

- Tolosaldea oinez eta bizikletan
- Mugikortasun turistikoa azterketa eta irtenbideen inplantazioa

Trantsizio digitala


- Tolosaldeko digitalizazio eta turismo adimentsuaren plana

Lehiakortasuna

- Turismo kulturalaren eskaintza sortu eta hobetzea
- Tolosaldea irisgarria
- Turismo aktiboaren eskaintza hobetzea
- Bertako produktuak turistari begira balioan jartzea
- Turismo jasangarriko planaren kudeaketa tekniko-administratiboa

2023ko uztailaren 19an, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailarekin Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren plana garatzeko funtsen transferentzia jasotzea ahalbidetu zuen Hitzarmena sinatu zen.

2023ko azaroan, Tolosaldea Garatzen eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena sinatu zen Tolosaldeko Turismo Jasangarriko Estrategiaren ekintza-planari buruzko kudeaketa-txostena eta informazioa Coffee plataforman igotzea adosten duena.



Tolosaldea

aniztasuna garatzen

Tolosaldea Garatzenen Migrazioa eta Aniztasuna sailaren barruan egindako jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiak Aniztasuneko Bizikidetzaren II. Foru Planaren barruan emandako finantzaketari esker inplementatu dira, eta Eusko Jaurlaritzak Herritartasunaren, Kultur artekotasunaren eta Immigrazioaren arloko VI. Plana 2022-2025 esparruan.

Horrez gain, Tolosako berdintasun sailetik eta eskualdeko hainbat udaletatik (Anoeta, Villabona eta Zizurkil) ere Guretzako emakume anitzen taldeak dinamizatzeko eta Tolosako Jabetze eskolaren barruan, Guretzako emakume anitzei zuzendutako atala antolatzeko diru laguntza jaso da. Udal hauek eta hainbat eragileei esker "ELKAR EZAGUTZEN 2023" proiektua aurrera eramatea ahalbidetu da.

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUN PLANEN DIMITSIO INSTITUZIONALA

Ikuspegi erakundearekin egungo eskualdeko migrazio eta jatorri aniztasunaren egoera aztertu ondoren, urte hauetarako ezartzen duen estrategia onartu zen Tolosaldea Garatzeneko administrazio kontseiluan 2017ko apirilean "Bizikidetzeta eta Aniztasun plana 2017-2020". 2021, 2022 eta 2023rako luzatzen da eta 2022an Tolosaldeko jatorri atzerritarreko pertsonen egoerari buruzko egindako azterketa diagnostikoa 2023an euskaratik gaztelaniara itzuli da.

Planeko lan ildoak modu integralean bultzatzea planteatzen da, diskriminazioari dagokionez esku-hartze esparru desberdinak barne hartuz (instituzionala, estrukturala eta pertsonen artekoa), immigrazio atzerritarren aurrean sortzen diren eta gizarte kohesio zein bizikidetzeta kalte egiten duten estereotipo negatibo eta aurreiritziei aurre egiteko funtsezko sektoreetan eraginez (Udaleko pertsonal politiko eta tekniko, komunikabide lokalak, hezkuntza komunitatea, elkarteak eta hiritargoa), eta beste instituzio publiko zein gizarte organizazio batzuekin elkarlanean aritzearen aldeko apustua eginez.

2023an ere eskualdeko udaletako pertsonal tekniko zein politikoeekin Migrazio eta Aniztasun sailetik elkarlana sustatu da urteko plangintza adosteko eta elkarlanean kultur artekotasuna eta bizikidetzatza sustatzeko jarduerak koordinatzeko. 2023an, zehazki, Tolosa, Irura, Anoeta, Zizurkil, Villabona, Ibarra eta Asteasuko udaletan jarduerak koordinatu dira.

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUN PLANEN DIMENTSIO ESTRUKTURALA

Tolosaldeko Baliabideen gida eguneratzea

Tolosaldeko baliabideen gidaren eguneraketa lanari dagokionez, 2023ko azken lau hilabeteetako lanketa egin dugu Farapi kooperatibarekin elkarlanean eskualdeko Tolosaldeko 2007ko gidaren edukia eguneratu eta formatu irisgarri eta ulergarri eta bisualki errazago batean izateko. 2023ra begira Tolosaldeko baliabideen gidaren bertsio berria euskara eta gaztelaniaz dugu. 2024ra begira eduki hori beste hizkuntza batzuetara itzultzeko saiakera egingo dugu. Tolosaldea Garatzen-eko web gunean izango da PDFa eskuragarri eta bai harrera eta arreta egiteko erabilgarria izango da baita eskualdeko udaleko teknikari eta gizarte eragiletako teknikari ezberdinentzat. Irakurketa eta bistaratze-esperientzia hobetzeko, gidaren azken formatua “.pdf” interaktibo bat izango da. PDF interaktiboan agertuko diren helbide guztiak geolokalizatuta egongo dira mapan.

Tolosaldeko harrera protokoloa diseinatzeko prozesua

Zuzeneko arreta

Tolosaldera iritsi berriak diren biztanleei era desberdinetan arreta eskaini zaie Migrazio eta Aniztasun sailetik. Tolosaldea Garatzeneko bulegoetara (Lehiberrira eta batik bat Emeterio Arrese, Tolosan) gerturatu direnei edo telefono bidez harremanetan jarri direnei arreta eman zaie. Bestalde, antolatzen ditugun ekintza eta saioen bitartez, baita Guretzako emakume taldeen bitartez eta Tolosako jabetze eskolaren bitartez lehen kontaktua ere egin izan dugu pertsona askorekin. Tolosaldea Garatzeneko enplegu sailetik ere eskaera anitz iristen zaizkigu, baita martxan ditugun ikasturte programen bitartez, arretarako hitzordurako eta kasuak hartatzeko.

Ohikoena lan bila, egoitza eta lan baimena lortzeko eta berritzeko baldintzak, edo eskubide ezberdinetan informatzeko gerturatu dira (laguntza sozialak, haurren eskolaratzea errolda gabe, kurtso eskaintza, ikasketen homologazioa). Zenbaitetan erantzuna zuzenean eman zaie, eta besteetan 2023ko martxotik Tolosan martxan den Aholkulariaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarera bideratzen dugu. 2023an, atzeritar jatorriko pertsonen, udalei eta elkartei emandako informazioa eta aholkularitzaren batz besteko kopurua bakarkako arreta eta kontsulten kopurua asko handitu da, eta batz beste 128 pertsona, elkarte eta udaleen eskaerei erantzuna eman zaie.

Telefono bidezko itzulpengintza zerbitzua Eudel

Eskualdeko gizarte zerbitzuetara gerturatzen diren jatorri ezberdinetako hiritarrei harrera hobetzeko, telefono bidezko itzulpengintza sistema jasotzeko aukera

luzatzen zaie gaztelera eta euskarari komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Zerbitzua Dualia Teletraducciones SL enpresaren bitartez eskaintzen da.

Atzeritar jatorria duten pertsonei zuzendutako saioak

Atzeritarrei zuzendutako atzeritartasun izapideei buruzko saioak BILTZEN.

Saio hauetan berrelkarketa errotzea, nazionalitatea edo kanporatze gaien inguruan informazioa eskaintzen da. Eusko Jaurlaritzako Biltzen Integrazioarako eta kulturen arteko Bizikidetzarako zerbitzuen bidez eskaintzen da. 2023an Villabonan urriak 26an eskaini zen hitzaldia eta guztira 12 pertsonek parte hartu zuen saioan, 6 emakumezko eta 6 gizonezkoek. Bestetik, Ibarra saioa errepikatu genuen kultur etxean eta Azaroak 16an izandako saioan 7 pertsonek parte hartu zuten.

Atzerriko ikasketak homologatzeko saioak:

Bidez bide elkarrearen bitartez Tolosako jabetze eskolaren barruan Apirilak 28an eskaini genuen saioa eta 5 emakume bertaratu ziren.

Zizurkilen, Irailak 27an beste saio bat egon zen eta 4 emakume eta 4 gizonezko bertaratu ziren.

Euskara

Tolosaldera heldu berri diren biztanleentzat, Euskara integrazio giltza izan litekeela uste dugu eta harrerari landu beharreko puntu garrantzitsuetako bat. Herri euskaldunetan euskara da kohesio eta komunikazio hizkuntza. Tolosaldeko hainbat udalek euskarara gerturatzeko baliabideak eskaintzen dituzte. Tolosaldea Garatzenekin euskararekin lehenengo harremana izateko, hainbat hizkuntzetan dauden hiztegitxoak eskaintzen eta puntu ezberdinetan zabaltzen jarraitu da (udalak, elkarteak, ikastetxeak, etab.).

IKASTURTE ETA URTEKO PROGRAMAK

Gazteak ongi etorri (Hizkuntza: euskara)

Eskualdera iristen diren 6-16 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduta eta gizartearen izango dituzten aukera berdintasuna bermatu nahian, "Gazteak ongi etorri" programa eskaini da.

2022-2023 ikasturtean, astelehenetan 6-9 adin tartean Villabonan 15 haur batz besteko izan dira. Tolosan asteartetan 9-12 adin tartean Kultur etxean 18 haur eta asteazkenetako taldean Tolosan 12-16 adin tartean batz beste 20.

2023-2024 ikastaroa urriari hasi da. 3 adin tarte ezberdinetan lan egiten jarraitzen da:

- 1) 6-9 adin tartekoak astelehenetan Villabonako Gaztelekuaren elkartzen dira 17:15etatik 19:15etara.
- 2) 9-12 adin tartekoak asteartetan Tolosako Gazte topagunean elkartzen dira 17:30etatik 19:15etara.

- 3) 6-9 adin tartekoak asteazkenetan Tolosako Gazte topagunean elkartzen dira 17:30etatik 19:15etara.

Ikasturte berri honetan batuz beste 43 hurrek parte hartzen dute programan.

Egitasmo honen helburu nagusia Tolosaldera etortzen diren haur eta gazte etorri berriei harrera egitea da. Bertan, Euskal Herriko eta Tolosaldeko ohituren berri ematen zaie eta baita munduko beste herrietako informazioaren berri ere beti ere euren jatorriko kultura besteekin konpartitzeko espazioa eskainiz. Haur eta gazte hauei ingurunean eroso eta gustura bizitzen laguntzeko baliabideak eskaintzen zaizkie modu erakargarrian hala nola, jolas, tailer eta dinamika desberdinen bitartez eta baita herriko baliabide ezberdinetara bisitak eginaz (haur liburutegia, Aranburu jauregia, erakusketak etab.). Bestalde, hizkuntzak ere garrantzi handia duenez gazteen integrazioarako, euskara modu informal batean lantzeko aukera izaten dute.

Orokorrean programak dituen helburuak bete direla esan dezakegu eta hurrek oso gustura hartu dute parte egitasmoaren dinamikan. Haur eta gazte iritsi berriei programan parte hartzeko gonbitea luzatzeko Tolosaldeko hainbat ikastetxeekin izan ohi dugu harremana. Bestetik ere, familiak eta pertsonak artatzeko momentuan ere informazioa zabaltzen zaie eta programa zabaltzeko ikasturte bakoitzeko diptikoak 7 hizkuntzetan eguneratuta izan ohi ditugu. Tolosaldeko atarian eta komunikabide ezberdinetan programaren inguruko informazioa zabaldu dugu.

Guretzako: jatorri ezberdinetako emakume taldeak Anoeta, Villabona eta Zizurkilen

2023an Tolosaldeko jatorri ezberdinetako emakumeei zuzendutako harrera eta bizitzarako gaitasunak ikasteko gunarekin jarraitu da urtarriletik ekainera. Indar handia jarri zaion programa izan da, 2015etik martxan jarri zena. 2022an eta 2023an Bidez Bidez izan da taldeak dinamizatu dituen elkarteak. 2023an urtarriletik ekainera hilabeteetan behin Anoetan, Villabona eta Zizurkilen egindako saioetan 12 emakumek parte hartu zuten eta baloratu zen irailtik abendura bitartean programarekin aurrera ez jarraitzea. Alde batetik, Anoetan jada Guretzako emakume taldean parte hartzen zuten emakumeek herri mailako ekintzetan parte hartzen dutenez, programak bere funtzioa bete zuela baloratu da eta horregatik ere itxiera ematea erabaki da. Villabona eta Zizurkilen kasuan ere, aurreko urteetan emakume talde batek parte hartu duen arren beste programa edota beste formula batzuk ere baloratzea erabaki da, kontuan izanda, Tolosaldeako Emakumeen Etxea ere martxan izanik eskaera eta behar ezberdinak detektatu ahal izango direla.

Jabetze Eskola (Tolosan)

Espazio hau emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sendotzeko dago pentsatuta, horrela, gizarte justu, anitz eta osoagoa lortzeko. Ez da ohiko prestakuntza leku bat, Jabetze Eskolan, Mugimendu Feministak garatutako jakintza eta produkzio kolektibo eta partekatutako metodologia erabiltzen da.

Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun saila, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailarekin elkarlanean, Emakumeentzako jabetze eskolaren programaren baitan

antolatzen dira saio eta ekintzak, “GURETZAKO” Jatorri anitzetako emakumeei bideratutako eskaintza.

2023an hurrengo jarduerak eskaini dira:

2023ko udaberri eta udako programazioa:

Emakume anitzei zuzendutako tailerrak:

- ***Xaboi naturalak egiten ikasteko tailerra:*** 18 emakumek parte hartu zuten.
- ***Nik ere baditut ikasketak. Nola homologatu?*** 5 emakume bertaratu ziren.
- ***Teatro terapeutiko tailerra*** 8 emakumek parte hartu zuten.
- ***Xaboi naturalak egiten ikasteko tailerra. 2.Fasea*** 18 emakumek parte hartu zuten tailerrean.
- ***Sendabelarren tailerra Sara Letamendiarekin.*** 15 emakumek parte hartu zuten tailerrean.

2023ko udazken eta neguko programazioa

- Urriak 20an Bidatz Sasiainekin ***kosmetika naturalaren tailerra*** egin zen. 15 emakumek parte hartu zuten tailerrean.
- Azaroak 6an Bidez bide elkartearekin Interseksionalitatea eta feminismo dekolonialaren inguruko tailerra izan dugu Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxean.

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUN PLANeko DIMENTSIO INTERPERTSONALA

Batetik, Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun sailetik, eragile eta udalekin koordinazioan, kultura arteko bizikidetza jarduerak bultzatu dira. Horrela, udalekin adostutako datetan sentsibilizazio ekintza ezberdinak antolatu dira, arreta berezia ipiniz nazioarteko egun seinalatuen inguruan erakusketak, hitzaldiak, zinema saioak, ipuinkontaktak, jardunaldiak eta topaketak prestatuz. 2023an ekintza ugari egin ditugu, besteak beste, Ibarra, Tolosa, Irura, Anoeta, Villabona, Zizurkil eta Asteasun bereziki.

Urtean zehar hainbat ekitalditan aritu da migrazio eta aniztasun saila laguntzaile, antolatzaile eta babesle moduan.

- ***MARTXOAK 8, Emakumeen nazioarteko eguna/ Martxoak 21 Arrazismo eta Xenofobiaren aurkako nazioarteko egunean:***
- MAIATZAK 21, Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna
- MAIATZAK 25, Afrikaren Eguna
- LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna
- Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeria sexistaren aurkako eguna
- Bizilagunak Tolosaldean (Azaroan 14an)
- Abenduak 10, Nazioarteko Giza Eskubideen eguna eta Abenduak 18 Pertsona Migratzaileen nazioarteko egunean

Data seinalatuen inguruan antolatuko diren ekitaldien artean, Tolosaldeko kultur etxe eta aretoetan aniztasuna, kulturartekotasunarekin, eta diskriminazio ezari lotutako

erakusketak, hitzaldiak, ipuinkontaktak, zine proiektzioak, azokak, dantza ikuskizunak eskainiko ditugu: 2023an ekintza eta ekimen ugari antolatu ditugu eskualdean eta udal eta eragile sozial ezberdinekin.

- Tolosan, urtarrilak 17an **Leidor aretoan Etxerik txikiena antzerkia** aurkeztu zen, bereziki ikastetxeetako 6-12 urteko haurrentzat zuzenduta. Yarleku antzerki taldeak eskaini zuen.
Parte hartzaileak: 134 ikasle.
- Martxoak 21 arrazismoaren aurkako nazioarteko egunean **Anoetan Urrutitik zetorren neskatoa ipuinkontakteta Saioa Aizpururen eskutik**. Parte hartzaileak: 40 haur.
- **Tolosan, "ANIZTASUNAK" erakusketa** egon zen ikusgai Aranburu jauregian Apirilak 28tik Ekainak 3ra. (Bataz beste 200/300 ikusle+ Fundacion Goienetxeko kideekin bisita gidatua)
- **3. Afrikako Astea (Divinas Gipuzkoako emakumeen elkartarekin elkarlanean).**
- **Anoetan, Maiatzak 17an Bilboko gaylesbotrans 18.nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdiko laburmetraien proiektzioa** eskaini zen. Zinegoak Elkartearen eskutik. (Hizkuntza: euskara eta gaztelania). Parte hartzaileak: 7 neska eta 3 mutil.
- **Tolosan, Ekainak 17an, Boolo elkarte senegaldarrak antolatuta, pintxo pote ekimena egin zuten.** Parte hartzaileak: 40
- **Iruran, Uztailak 15an,** Irura Moretuz elkartarekin elkarlanean, Irura Bizik antolatzen duen UZTA EGUNEAN kawadeni elkartarekin dantza afrikarreko tailerra eskainiko da familiei.
- **Tolosan,** Orixe ikastetxeko 2.batxilergoko 2 gelek **"Africa no es un país"** hitzaldia eskaini zuten Divinas Gipuzkoako emakume nigeriarren elkartetik. Saioak 45 minutu iraun zuen eta ingelesez izan zen. Parte hartzaileak: 84 ikasle. 34 mutil eta 50 neska.
- Tolosan, Andragora Tolosaldeako Emakumeen Etxean KCD kultura eta garapena Garapenerako Gobernu Kanpoko erakundeareki elkarlanean **Senegalgo (Gandioli) emakumeen etxearekin esperientziak trukatzeko saioa** antolatu zen. Parte hartzaileak: 16 emakume bertaratu ziren Andragora emakumeen etxera.
- Azaroan 16an bi ekintza ditugu antolatuta. Alde batetik, **Zizurkilgo udal liburutegian Urrutitik zetorren neskatoa ipuinkontakteta** eskainiko da Saioa Aizpururen eskutik. Egun bereberean **Ibarran, Biltzen-ekin elkarlanean Atzerriartasun tramiteei buruzko saioa** eskainiko dugu **Ibarrako kultur etxean.**
- **Azaroak 19an, Bizilagunak ekimena Tolosaldean.**
- Abenduak 10, giza eskubideen eguna eta Abenduak 18, pertsona migratzaileen egunari lotuta **4 hitzordu** izan ditugu eskualdean.

Urtean zehar bai antolatzaile eta babesle moduan antolatutako ekintzetan (antzerkiak, tailerrak, zine emanaldiak, formazioak, hitzaldiak, musika emanaldia, erakusketak) Tolosaldeko 931 pertsonak parte hartu ahal izan dute.

Eskualdean dauden eta jatorri ezberdinetako elkarleen aholkularitza eta indartze prozesuak sustatzen jarraitu dugu, hala nola, Divinas emakume nigeriarren elkartea, Erite, Zutani, Sos arrazakeria, Jatorrin, ILP erregularizazio taldea Tolosaldean, etab.

Josi eta Josi proiektua

TolosaldeaLab enplegagarritasun mahaiko Zutani, Jatorrin, Inmakulada ikastetxea eta Fundación Emplearekin Josi eta Josi Tolosaldean proiektua landu zen 2022 urtean. 2023an hasiera eman zitzaion Joskintzako ziurtagiri profesionalari lehen aldiz Tolosaldean, 17 parte hartzaileekin. 2023ko urritik 2024ko uztaila bitartean beste 16 pertsona parte hartzen ari dira ziurtagirian. Jarraipen bilerak, eskualdeko gizarte zerbitzuetara bideratu zen gonbidapen gutuna ahalik eta pertsona gehiengoarena iritsi ahal izateko eta 2. Ziurtagiriko 2 pertsonak beraien egoera erregularizatzeko aukera izan dute ikastaroari esker.

Mundu bat Asteasun

Asteasuko udalak eta Xirimiri elkarteak bultzatutako jatorri aniztetako pertsonen parte hartzea sustatzeko prozesu parte hartzailea martxan jarri zuten 2022ko uztailan Asteasun. Prozesu honetan parte hartzen ari gara Tolosaldea Garatzeneko migrazio eta aniztasun sailetik, kulturen arteko esku-hartze komunitarioan urrats bat emanez Asteasun. 2023an Asteasuko Kulturarteko espazio topaketak 3 izan dira eta 2 topaketetan parte hartu izan dugu.

MIGRAZIO ETA ANIZTASUNAREKIN LOTURIKO FOROETAN PARTE HARTZEA

Koordinazioaren arloan, ezinbestekoa izan da, batetik Tolosaldean migrazioarekin lotutako eragileekin koordinazioa sustatzea eta bestetik eskualdean, nahiz kanpoko bilera desberdinetan parte hartzea.

Tolosan Hezkidetzeta mahaian, berdintasun teknikariekin, gizarte zerbitzuekin, osasun sistemako eragileekin eta ikastetxeekin aniztasuna landu da. Baita, Gipuzkoa eta EAEko mailan migrazio teknikari lanetan ari diren beste teknikariekin hartu emana izatea ELKARBIZI, Diputazioko bilkurretan eta ZAS- Zurrumurruean Aurkako Sarean.

2023an hainbat lan mahai, sare foro, topaketa eta jardunalditan parte hartu da.

INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

Eskualde mailan atzerritar jatorriko pertsonen, udalen eta kulturartekotasun eta aniztasun kulturala lantzen duten elkarteen aholkularitza eta informazioa eskaini zaie. Guztira, 128 eskaera artatu dira.

2023an aipatzekoa da atzerritar jatorriko pertsonen erantzun integralagoa emateko aukera izan dugula 2023ko martxotik aurrera, Tolosan ireki zen Aholkusare zerbitzura martxan jarri zelako, hau da, Atzerritartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarea.

2022ko uztailan eskaera etorri zitzaigun Orixe ikastetxetik aniztasun kulturala oinarri izango zuen proiektua lantzeko. Hori dela eta 2022ko irailtik abendura eta 2023ko ekainera bitartean beraien plangintzan migrazio eta aniztasun sailetik egindako ekintza eta programazioan ikasleek parte hartu ahal izatea ahalbidetu da. Ikasleek 2023an aukera izan dute Zuloaga txiki eta Peñasal kooperatibara bisita egiteko.

Bestetik bai udaletako, elkarte ezberdinetako eta ikastetxeko irakasleen eskaera eta behar kasuetan, erantzun zuzena emango zuten baliabide, erakunde eta elkarteetara bideratu dira. Gazteak ongi etorri egitaspora izen emateko, ikastetxean harrera nola

landu ahal izateko, Bizilagunak ekimena Inmakulada ikastetxeko gizarte integrazio modulan aurkezteko. 2023ko irailaren 28an eta urriaren 5ean Orixeko batxilergoko ikasleek *África no es un país* saioa izan zuten Divinas elkartearen eskutik ingelesez. 2023ko urtarrilean Etxerik txikiena antzerkia eskaini zitzaizen eskualde mailako ikastetxe guztiei Leidor aretoan migrazioa eta kulturartekotasuna lantzen duen lanean. 2023ko abenduan Villabonako bi ikastetxeetatik Murren bidaia txotxongilo antzezlanaren erakusteko aukera izan zuten LH4 eta LH5eko ikasleek.

Horretaz gain, Migrazioarekin zerikusia duen informazioa (formazioa, jardunaldiak, praktika onak, etab.) zentralizatu eta eskualde mailan zabaltzeko asmoa da. Kasu honetan aipatzekoa da, 2023ko otsailaren 24an eskaini genuela Lehiberrin Tolosaldean atzerritar jatorriko pertsonekin eskuhartzean diharduten teknikarientzako Atzerritartasunaren inguruko 4 orduko formazio saioa. Aholkulari-ko Maria Luisa Alza abokatuak eskaini zuten formakuntza eta 17 pertsona bertaratu ziren saiora.

Eskualdea mailan aktiboki presentzia duten eta amankomunean lanean aritu garen elkarteekin elkarlana eta aholkularitza zerbitzua eman da 2023an, besteak beste, *Las Divinas* emakume nigeriarren elkarte kulturala, Ereite elkarte, *Billabonarte*, *Eskuahalduen* eskultoreen elkarte, Zutani elkarte, Jatorrin, Zehar errefuxiatuak eta Gipuzkoako SOS arrazakeriarekin bereziki.



Tolosaldea

kontsumo bulegoa

Herritarrak gero eta gehiago arduratzen dira beren eskubideak baliarazteaz eta KIUBetik artatu dira, bai pertsonalki, bai telefonoz, bai posta elektronikoz bidez, eta, informazioa emateaz gain, gatazka konpontzeko modurik egokienari buruz ere hitz egin da (epaiketaz kanpo —administrazio-bidea edo arbitraiaren bidea—, edo epaiketa bidez – bide zibila edo merkataritza-bidea—), edo, are gehiago, gatazkari aurrea hartzeko moduari buruz ere bai, baldin eta ezin bada administrazio-bitartekaritza edo izapide administratiborik egin. Izan ere, herritarrei dagozkien arazo eta gatazka asko konpontzeko ahalmen handia duen zerbitzua da.

2023ko ekitaldia gorabeheratsua izan dela aitortu beharra dago, izan ere, Kontsumo bulegoa 4 hilabetez itxita izan delako. Ondorioz, zerbitzuak geldialdia jasan du urtarrila eta apirila bitartean. Bitarte horretan, Kontsumobidera bideratu dira informazio eskaerak, erreklamazioak, salaketak eta kexak.

Gainerakoan, kontsumo-arloarekin zerikusirik ez duten gaiei buruz eskualdeko herritarrek egindako kontsultak jasotzen jarraitzen du zerbitzuak, kontsulta edota ebazpenerako zein erakunde erabili behar den jakin gabe, Tolosaldeko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora jotzen dutelako maiz. Horretarako, herritarrarengandik hurbil dagoen zerbitzu bat aurkitu dute, eta zerbitzu horretan konfiantza osoa jartzen dute behar den lege-arloko orientazioa lortzeko. Hala ere, berriro ere argi geratzen da egungo baliabideekin eskaera osoari erantzuteko zailtasuna.

Tolosaldeko KIUBean lehenengo kontsulta ikuspegi juridiko-legaletik aztertzen da, nola lagundu eskualdeko herritarren interesak, aurreneurritzko justizia lehenetsiz, lehenik eta behin, gure informazio eta prestakuntza-lanaren bidez eta honekin lortzen ez bada, gure bitartekaritza-lanaren bidez, helburu nagusia betez, hau da, epaitegien aurrean auziak duen eragina –oro har negatiboa– gutxitzea eta, horrela, denbora eta dirua aurreztuz, bai eskualdeko herritarrei, bai Justizia bera arintzen.

Kontsumo Administrazioa garen aldetik, herritarrekiko konpromisoa, unibertsaltasuna, irisgarritasuna, objektibotasuna, gardentasuna eta zorrotasuna dira gure balioak.

KONTSULTAK

Kontsumo bulegoan era guztietako kontsultak jasotzen dira, eta haiei ahalik eta erantzun eraginkorrena eskaintzean datza zerbitzuaren muina. Ondorengo taulan ikus daiteke zein formatu, kokapen eta gaietan bideratu diren kontsulta horiek guztiak.

Bertan, azterketa eta dokumentatze-lanketa jakin bat eskatu duten kontsultak ikus daitezke.

SEKTOREAK	AURREZ AURREKOAK			AURREZ AURREKOAK EZ DIRENAK	GUZTIRA
	IBARRA	TOLOSA	VILLABONA		
MERKATARITZA (fisikoa, urrutikoa eta elektronikoa)	1	11	3	43	58
IRAKASKUNTZA EDOTA PRESTAKUNTZA	1		2	9	12
FINANTZA ERAKUNDEAK	20	39	12	97	168
OSTALARITZA ETA TURISMOA	1	2		25	28
AISIA (jokoak eta ikuskizunak) ETA SUKALDARITZA	2			4	6
OSASUNGINTZA				2	2
ASEGURUAK		6	7	28	41
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAK (igeltserotza, iturgintza, aroztegia ...)	3	2	6	49	60
LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK			1	8	9
ZERBITZU PROFESIONALAK (finka-administratzaileak, arkitektoak, abokatuak ...)		1	4	12	17
OINARRIZKO HORNIKETAK (ura, elektrizitatea eta gasa)	3	16	6	49	74
TELEFONIA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK	7	20	7	70	104
TINTADEGIAK				1	1
GARRAIOA (airekoa eta lurrekoa) ETA MEZULARITZA	3	4		22	29
IBILGAILUAK (tailerrak, kontzesiodunak, alokairua ...)	5	10	5	41	61
ETXEBIZITZA (alokairuak, jabe-komunitateak edota jabetza horizontala, higiezin-zerbitzuak, bermeak ...)	5	5		34	44
BESTE ZENBAIT	2	1	3	34	40
GUZTIRA	53	117	56	528	754

Gure estatistika aztertuta, **gehien kontsultatu diren sektoreak** honako hauek dira, hurrenkera honetan:

1. Finantza-erakundeak
2. Telefonía eta telekomunikazioak
3. Oinarrizko hornikuntzak (ura, elektrizitatea eta gasa)
4. Ibilgailuak (tailerrak, kontzesiodunak, alokairua, salmenta, konponketak ...)
5. Etxe etxeko zerbitzuak (igeltserotza, iturgintza, aroztegia ...)
6. Komertzioa (fisikoa, urrutikoa eta elektronikoa)
7. Etxebizitza (alokairuak, bermeak, jabetza horizontala, ...)
8. Aseguruak

ERREKLAMAZIOAK

Kontsumo bulegoan jasotzen diren kontsultez gain, kasu batzuetan erreklamazioa izapidetzeko aholkularitza eta bitartekaritza ere eskaintzen zaie herritarrei, haien profilaren eta kasuaren larritasunaren arabera.

Erreklamazioen kudeaketari dagokionez, ondorengo taulan ikus daiteke zein izan den izapidetutako erreklamazioen emaitza.

ERABAKIAK	ESKAERAK
Aldeen arteko adostasunez artxiboa	21
Adostasunik gabeko artxiboa	2
Artxiboa arbitraje proposamenarekin	0
Artxiboa epaiketa proposamenarekin	1
Kontsumobidera bideratutakoak (espediente-proposamena)	1
Dokumentazioa edo probak ez izateagatik artxiboa	0
Atzera egiteagatik artxiboa	1
Zigorrik gabeko artxiboa	0
Izapidetzea onartu ez delako artxiboa	3
Kontsumo arloko ez diren beste erakunde batzuetara eramatea	1
Izapidetzen	1
GUZTIRA	31

Kontuan izanda gero eta zailagoa dela enpresekin akordio ekonomikoak lortzea, (besteak beste, aztertutako gaietan eskumena duten agintariek disuasio-zigorrik ia ez dutelako ezartzen), batzuetan, erreklamatzailerak administrazio-bidea utzi eta beste bide batzuetara jo behar izaten du, hala nola arbitrajera edo auzibidera. Herritarrek, aholkua eskatu ondoren, bide hauek jotzea erabakitzen dutenean, Tolosaldeko KIUBengatik behar duen laguntza guztia jasotzen du bere ibilbide osoan; hau da, Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordean izapidetzen den bitartean laguntzea (eskaera idaztea, audientzia prestatzea, ...), edo Justizia Auzitegietan izapidetzen ari den bitartean lagunduz (honako hauek prestatzen lagunduz: hitzezko epaiketaren demanda-idazkia, alegazio-idazkia, lekukoen izendapen-eskaeraren idazkia, jarduketak artxibatze eskaera-idazkia, berraztertze errekurtsioa, bista prestatzea, epaia betearazteko eskaera-idazkia, ofiziozko libramendua eskatzeko idazkia demandatuaren ondasunak ikertzeko, epaiaren exekuzioan Epaitegiaren kontuan ordaindutako

kopuruak kontuan sartzeko eskaera-idazkia...), prozesua arbitrajeko laudoaren edo epai judizialaren bidez amaitu arte, hurrenez hurren.

Hala ere, lortutako emaitzei dagokienez, gure gogobetetze-maila adierazi behar dugu; izan ere, gure ustez garrantzitsua den zifra bat lortu dugu erakunde honek egindako bitartekaritza-jarduerei dagokienez, erreklamatzaileren eta erreklamatuaren arteko adostasuna lortuz.

Bestalde, uste dugu kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesteko modu eraginkorrena haiei informazioa eta prestakuntza ematea dela, legez araututako prebentzio-bideez jabetu daitezzen, bai eta gatazka sortu ondoren erabili beharreko bidez ere.

SALAKETAK

Hona hemen Kontsumo Bulegotik bideratutako salaketak:

SEKTOREAK	KOPURUA
FINANTZA ERAKUNDEAK	1
TELEKOMUNIKAZIOAK	1
TURISMOA	1
GUZTIRA	3

Salaketak beste erakundeetara inhibituz kudeatu dira. Oro har, enpresa mamuei egindako erosketetan, identitate-ordezpenetan, egoera txarrean dauden produktuetan edota enpresa batzuek merkataritza-praktika desleialetan oinarrituta egiten dira.

KEXAK

Hona hemen Kontsumo Bulegotik bideratutako kexak:

SEKTOREAK	KOPURUA
SUKALDARITZA	1
GUZTIRA	1

Herritarren kexak, oro har, enpresek edo haien langileek tratu desegokia eman dietelako, edota jaso dituzten eta haien gustukoak ez diren zerbitzuengatik izaten dira, baina ezin da arau-hauste administratibotzat hartu, eta ezin da salatu kontsumo-erlotik kanpoko beste erakunde batzuen aurrean.

Hona hemen Kontsumo Bulegoan aztertu eta dokumentatutako kontsultak, erreklamazioak, salaketak eta kexak aurkeztu dituzten **HERRITARREN JATORRIA**:

UDALA	Kop.	UDALA	Kop.	UDALA	Kop.
Abaltzisketa	0	Belauntza	5	Larraul	2
Aduna	0	Berastegi	2	Leaburu	4
Albiztur	0	Berrobi	4	Lizartza	2
Alegia	21	Bidania-Goiatz	11	Orendain	3
Alkiza	1	Elduain	4	Orexa	0
Altzo	3	Gaztelu	4	Tolosa	432
Amezketeta	8	Hernalde	0	Villabona	78
Anoeta	30	Ibarra	91	Zizurkil	28
Asteasu	10	Ikaztegieta	4	Besteak (*)	22
Baliarrain	4	Irura	16		
GUZTIRA (kontsultak, erreklamazioak, salaketak eta kexak)					789

(*) Andoain, Avilés (Asturias), Beasain, Bergara, Donostia, Hernani, Irun, Itsasondo, Legorreta, Madrid, Ordizia, Zarautz, Zumarraga.

BESTE JARDUERAK

Informazio eta aholkularitza juridiko-legala emateaz gain; erreklamazio eta salaketarako espediente administratiboak aztertu -kontsumitzailea babesteko jarduketak beste erakunde batzuekin koordinatzen- eta tramitatzeaz gain; kontsumoaren arloko gatazkak kudeatu eta konpontzeaz gain; bulego ibiltari baten funtzionamendu egokia kudeatu beharra; kontsulta, erreklamazio, kexa eta salaketa guztiak erregistratu eta artxibatu beharra; Justizia Epaitegiak deituta egindako lanaren berri eman beharra; idazki juridiko-legalak idazteko eta aztertze beharra; txosten juridiko eta estatistikoak egiteko beharra; komunikabideen arreta eta haietan parte hartzea (prentsa, irratia eta telebista -EITB-), web-ean berriak edo aholkuak publikatzea eta KONTSUMOBIDEk entitateei zuzendutako laguntza ekonomikoaren eskaera kudeatu eta tramitatu behar da. Bestaldetik, beharrezkoa da etengabeko prestakuntza eta eguneratze profesionala eta horretarako formakuntza ikastaroak jasotzen dira, sententziak eta araudi berriak aztertzen beharrezkoa da, etab.

ERANSKINAK

A.- 2023ko Galdu Irabazien Kontua eta Balantzea

B.- Adierazle taula: 2023ko gestio planaren ebaluazioa

A ERANSKINA (1/2): Balantzea 2023ko abenduaren 31n

TOLOSALDEA GARATZEN, S.A.			
ETEen BALANTZEA 2023 EKITALDIAN/ BALANCE DE PYMES CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2023			
(Eurotan/Euros)			

	Memoriaren oharrak/ Notas de la Memoria	2023	2022
A) AKTIBO EZ ARRUNTA/ ACTIVO NO CORRIENTE		1.298.919,30	1.392.570,96
I. Ibilgetu ukiezina/ Inmovilizado intangible	4.1, 5.1	403.983,65	457.754,29
II. Ibilgetu materiala/ Inmovilizado material	4.2, 5.2	890.497,65	930.378,67
V. Finantza-inbertsioak epe luzera/ Inversiones financieras a largo plazo	4.4, 6	4.438,00	4.438,00
B) AKTIBO ARRUNTA/ ACTIVO CORRIENTE		3.173.888,12	1.879.873,82
II. Zordun komertzialak eta beste kontu batzuk kobratzeke/ Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	4.4, 6, 9	1.272.257,58	1.305.876,56
1. Salmenten eta zerbitzuen bezeroak/ Clientes por ventas y prestaciones de servicios		50.095,89	37.627,76
3. Beste zordun batzuk/ Otros deudores		1.222.161,69	1.268.248,80
IV. Finantza inbertsioak epe laburrera/ Inversiones financieras a corto plazo	4.4, 6	1.209.108,52	360,66
V. Periodifikazioak epe laburrera/ Periodificaciones a corto plazo		69.348,65	567.774,13
VI. Eftektiboak eta beste aktibo likido baliokideak/ Efectivo y otros activos líquidos equivalentes	4.4.	623.173,37	5.862,47
AKTIBOAK GUZTIRA/ TOTAL ACTIVO (A+B)		4.472.807,42	3.272.444,78

	Memoriaren oharrak/ Notas de la Memoria	2023	2022
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA/ PATRIMONIO NETO Y PASIVO			
A) ONDARE GARBIA/PATRIMONIO NETO		1.190.344,92	1.315.440,96
A-1) Berezko funtsak/ Fondos propios	8	8.077,37	7.993,89
I. Kapitala/ Capital		61.905,30	61.905,30
1. Eskrituradun kapitala/ Capital escriturado		61.905,30	61.905,30
II. Igorpen prima/ Prima de emisión/		12.385,29	12.385,29
III. Erreserbak/ Reservas		35.952,91	35.952,91
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak/ Resultados de ejercicios anteriores		(102.249,61)	(97.496,67)
VII. Resultado del ejercicio/Ekitaldiaren emaitza	3	83,48	(4.752,94)
A-2) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak/ Subvenciones, donaciones y legados recibidos	4.8, 12.2	1.182.267,55	1.307.447,07
B) PASIBO EZ ARRUNTAK/ PASIVO NO CORRIENTE		775.096,77	9.160,96
II. Zorrak epe luzera/ Deudas a largo plazo	4.4, 7	10.461,77	9.160,96
2. Bestelako pasibo finantzarioak/Otros pasivos financieros		10.461,77	9.160,96
V. Periodifikazioak epe luzera/ Periodificaciones a largo plazo		764.635,00	0,00
C) PASIBO ARRUNTAK/ PASIVO CORRIENTE		2.507.365,73	1.947.842,86
I. Epe laburreko hornidurak/ Provisiones a corto plazo		3.579,90	0,00
III. Zorrak epe laburrera/ Deudas a corto plazo	4.4, 7	2.032,19	170.924,97
1. Zorrak kreditu erakundeekin/ Deudas con entidades de crédito.		0,00	169.326,47
5. Beste finantza-pasibo batzuk/ Otros pasivos financieros		2.032,19	1.598,50
IV. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk/ Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar	4.4, 7, 9	317.564,35	773.633,37
1. Hornitzaileak/ Proveedores		2.478,00	0,00
2. Beste hartzekodun batzuk/ Otros acreedores		315.086,35	773.633,37
V. Periodifikazioak epe laburrera/ Periodificaciones a corto plazo	12.2	2.184.189,29	1.003.284,52
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA/ TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO (A+B+C)		4.472.807,42	3.272.444,78

A ERANSKINA (2/2): 2023ko Galdu-irabazien kontua

TOLOSALDEA GARATZEN, S.A. ETEEen GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2023 EKITALDIAN/ CUENTA DE PERDIDAS Y GANANCIAS DE PYMES CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2023 (Eurotan/ Euros)			
	Memoriaren oharrak/ Notas de la Memoria	(Zorra)	(Zorra)
		Hartzekoduna/ (Debe) Haber	Hartzekoduna / (Debe) Haber
		2023	2022
1. Negozio-zenbakien zenbateko garbia/ Importe neto de la cifra de negocios	4.6	214.194,64	159.356,84
4. Hornikuntzak/ Aprovisionamientos	4.6, 10.1	(856.981,50)	(734.986,02)
5. Beste ustiapen-sarrera batzuk/ Otros ingresos de explotación	4.6, 4.8, 12.2	1.582.484,61	1.512.475,59
6. Langile-gastuak/ Gastos de personal	4.6	(835.109,03)	(819.548,22)
7. Beste ustiapen-gastu batzuk/ Otros gastos de explotación	4.3, 4.6, 10.2	(94.096,99)	(100.950,30)
8. Ibilgetuaren amortizazioa/ Amortización del inmovilizado	4.1, 4.2, 5	(98.998,13)	(98.687,29)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena/ Imputación subv. de inmovilizado no financiero y otras.	4.8, 12.2	81.509,52	81.509,52
12. Beste emaitza batzuk/ Otros resultados	4.6, 10.3	(96,41)	1,13
A) USTIAPENAREN EMAITZA/ RESULTADO DE EXPLOTACIÓN (1+4+5+6+7+8+9+12)		(7.093,29)	(828,75)
12. Finantza-sarrerak/ Ingresos financieros	4.6	6.375,97	8,15
13. Finantza-gastuak/ Gastos financieros	4.6	(2.712,20)	(3.932,34)
16. Narriatzea eta emaitzak finantza-tresnak besterentzeagatik/ Deterioro y rdo. por enajenación instrumentos financ.	4.6, 6	3.513,00	0,00
B) FINANTZA EMAITZAK/ RESULTADO FINANCIERO (12+13+16)		7.176,77	(3.924,19)
C) ZERGA AURREKO EMAITZA/ RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A+B)		83,48	(4.752,94)
18. Irabazien gaineko zergak/ Impuestos sobre beneficios	4.5, 9	0,00	0,00
D) EKITALDIAREN EMAITZA/ RESULTADO DEL EJERCICIO (C+18)		83,48	(4.752,94)

B ERANSKINA: Adierazle taula: 2023ko gestio planaren ebaluazioa

UDAL SAILA	ADIERAZLEA	2023	2023
		GP	ERREALA
IDAZKARIEN FOROA	BILERA KOPURUA	3	0
TOLOSALDEKO INGURUMEN BATZORDEA	BILERA KOPURUA	2	2
UDAL ORDEZKARIEI FORMAKUNTZA	IKASTARO KOPURUA	1	1
UDAL ORDEZKARIEN HARRERA JARDUNALDIA	UDAL PARTEHARTZAILE KOPURUA	10	11
TOLOSALDEKO ENERGIA MAHAIA	BILERA KOPURUA	2	1
ESKUALDEKO ERAGILEEKIN KOORDINAZIOA	ERAGILE KOPURUA	3	3
TOLOSALDEKO POBREZIA ENERGETIKOAREN AURKAKO MAHAIA	BILERA KOPURUA	2	1
ENERGIA BULEGOA	HARTATUKO PERTSONA KOPURUA	100	63
POBREZIA ENERGETIKOA : AHALDUNTZE TAILERRAK	AHALDUNTUKO PERTSONA KOPURUA	25	15
ENERGIA PYMETAN	LAGUNDUTAKO ENPRESA KOPURUA	5	17
ENERGIA KOMUNIKABIDEETAN	ENERGIA INGURUKO EDUKIAK KOMUNIKABIDEETAN	4	4
ELEKTROMUGIKORTASUN ZERBITZU PARTEKATUAREN AZTERKETA	UDAL PARTEHARTZAILE KOPURUA	9	10
ESKOLA AGENDA 2030	EA21 MANTENTZEN DEN IKASTETXE KOPURUA	14	14
JANGELETAKO HONDAKIN ORGANIKOA GUTXITZEKO PROIEKTUA	PARTE HARTZEN DUEN IKASTETXE KOPURUA	5	12
ZIENTZIA ESKOLA: ZIENTZIA TAILERRAK	ZIENTZIA ESKOLAKO TAILERRETAKO IKASLE KOPURUA	30	25
ZIENTZIA ESKOLA: ENPRESEKIN HARREMAN ESPERIENTZIA	GONBIDATUTAKO ENPRESA KOPURUA	4	3
ENPRESA			
ENPRESEN HELDUTASUN TEKNOLOGIKOA ETA GARATUTAKO PROIEKTUAK	ENPRESA PARTE HARTZAILE KOPURUA	20	20
BERRIKUNTZA PROFILAK	ENPRESA KOPURUA	8	7
HAZINNOVA	TRAMITATUTAKO ESPEDIENTE KOPURUA	8	12
LIDERO ERA BERRIAK	ENPRESA KOPURUA	10	9
TOLOSALDEKO IKT ASTEA (15. EDIZIOA)	PARTEHARTZAILE KOPURUA	150	133
LEHIBERRI ESKOLA	ANTOLATUTAKO MINTEGI KOPURUA	8	10
LEHIBERRI HIZKUNTZAK	ANTOLATUTAKO IKASTARO KOPURUA	2	1
LEHIBERRI FOROKO PARTAIDEAK	ENPRESA KOPURUA	75	66
LEHIBERRI FOROA EKIMENAK	PARTEHARTZAILE KOPURUA	30	34
PROSPEKZIOA	ENPRESA KOPURUA	50	46
NEWSLETTER ELEKTRONIKOA	ALE KOPURUA	10	11
EKINTZAILETASUNA			
PERTSONA EKINTZAILEAK ARTATU	ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA	150	143
NEGOZIO IDEIEN AZTERKETAK	EGINIKO BIDERAGARRITASUN AZTERKETA KOPURUA	30	30
	EGINIKO AZTERKETA EKONOMIKO FINANTZIERO KOPURUA	10	7
	SORTUTAKO ENPRESA KOPURUA	25	27
ENPRESEN JARRAIPENA	JARRAIPENA EGINIKO ENPRESA KOPURUA	6	6
ENPRESA BERRITZAILEAK IDENTIFIKATU, ERAKARRI ETA KOKATU	ENPRESA HAZTEGIAN KOKATUTAKO ENPRESA BERRI KOPURUA	2	0
EKINTZAILEEI ZUZENDURIKO ENPRESA KUDEAKETA IKASTAROAK	IKASTARO KOPURUA	2	1
SENTSIBILIZAZIO TAILER, HITZALDI, MINTEGI ETA SAIO DESBERDINAK	SAIO KOPURUA	5	7
ESKUALDEKO EKINTZAILEEN TOPABILDUMA. ARGAZKIA+ENPRESAREN INFORMAZIOA	BILDUMA	1	0
ENPRESA IDEIA GARATZEKO BEKA	BEKA KOPURUA	4	2
ENPRESA ABIARAZTEKO BEKA	BEKA KOPURUA	4	0
EKONOMIA SOZIALA ETA SOLIDARIOA	SAIOAK	2	1

ENPLEGUA	ADIERAZLEA	2023	2023
		GP	ERREALA
TALDEKAKO ORIENTAZIOA.	TALDEKAKO ORDU KOPURUA	80	20
ORIENTAZIO INDIBIDUALA	BANAKAKO ORDU KOPURUA	625	600
ENPLEGU ZENTROA	BANAKAKO KONTSUTAK	150	300
LANBIDE ETA KOLOKAZIO AGENTE JARDUERA	KUDEATUTAKO LAN ESKAINTZA KOPURUA	135	165
ETXEKOLAN PROGRAMA	ARTATUTAKO FAMILIA KOPURUA	40	31
TOSALDEAN LANEAN	PARTE HARTZAILE KOPURUA	10	10
TOLOSALDEALAB	BILERA KOPURUA	6	3
LANERATZEKO AHALDUNTZEA. ELKAR EKIN 2023	PARTE HARTZAILE KOPURUA	15	45
TXARAMA EHUNTZEN	PARTE HARTZAILE KOPURUA	10	10
TURISMOA			
TOLOSALDEKO TURISMO MAHAIA	URTEAN GARATUTAKO LAN MAHAI EZBERDIN ETA EGONKORREN KOPURUA	6	4
EUSKADIKO TURISMO ETIKOAREN KODEA	ENPRESA KOPURUA	30	27
TURISMO ALORREKO EKINTZAILEAK	ENPRESA KOPURUA	10	6
TOLOSA GOURMET KLUBA	ATXIKITUTAKO ENPRESA KOPURUA	45	40
ESPERIENTZIA ETA PLANAK	EUKADI HAUTATUTAKO ESPERIENTZI-PLAN KOPURUA	10	10
EUSKADIKO FAMILIA TURISMO PRODUKTU KLUBA	ATXIKITUTAKO ENPRESA KOPURUA	30	12
TURISTEI HARRERA	ARTATURIKO TURISTA KOPURUA	20.000	9.727
	BISITA GIDATUEN ERABILTZAILERAK	1.500	1.590
	ARTATURIKO TURISTA KOPURUA	7.000	2.813
TOLOSALDEA INFO HILABETEKARIA	MAILING KOPURUA	12	12
MIGRAZIOA			
ATZERRITARTASUN LEGEAREN INGURUKO SAIOAK	SAIO KOPURUA	2	2
ATZERRIKO IKASKETEN HOMOLOGAZIO SAIOAK	SAIO KOPURUA	2	2
GAZTEAK ONGI ETORRI PROGRAMA	GAZTE PARTEHARTZAILE KOPURUA	50	53
JATORRI EZBERDINETAKO EMAKUME TALDEAK SUSTATU	EMAKUME PARTEHARTZAILE KOPURUA	40	12
TOLOSAKO EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA-GURETZAKO	EKINTZA ETA SAIO KOPURUA	6	7
ATZERRITARREI, UDALEI ETA ELKARTEEI INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA	ARTATUTAKO ESKAERA KOPURUA	50	128
FORMAKUNTZA	TAILER KOPURUA	2	1
IPUIN KONTALARIAK, ANTZERKIAK, ERAKUSKETAK, HITZALDIAK	EKINTZA KOPURUA	6	9
ANIZTASUNAREN IKUSPUNTUA TXERTATUZ PARTEHARTZEA:	BILERA KOPURUA	12	14
ELKARTEKIN EKINTZAK ANTOLATU ETA KOORDINATU	EKINTZA KOPURUA	6	9
BALIABIDEEN GIDA-HARRERA PROTOKOLOA TOLOSALDEAN	BILERA KOPURUA	6	8
OMIC-KIUB			
ERANTZUNDAKO KONTSULTA KOPURUA	ARTATUTAKO KONTSUMITZAILE KOPURUA	1.000	754
KUDEATUTAKO ERREKLAMAZIO, SALAKETA ETA KEXA KOPURUA		50	35

